

ZERUKO ARGIA

PRANTZISKO DEUNAREN

Bizitzatxoa

1226-1926



R-3033

ATV  
17.186

N. 2913  
B. 34846

«ZERUKO ARGIA»



# ASISTAR PRANTZISKO DEUNA

(1182 - 1226)



Prantziskar-Kaputxino batek egiña  
1926

Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan.  
Iruña,ko Kaputxinoetan. 1927.




NIHIL OBSTAT  
Fr. Damasus ab Inza, *Censor.*  
Pampilonae, 2 Augusti 1926.

IMPRIMATUR  
Fr. Joachim a Beriain  
*Minister Provincialis F. M. C.*

NIHIL OBSTAT  
Josephus Michael Gabica Echeverria  
*C. M. F. Censor.*  
Pampilonae, 25 Septembris 1926.

IMPRIMI POTEST  
† MATTHAEUS EPISCOPUS PAMPILONENSIS

Ilmi. ac Revmi. Dni. mei Episcopi mandato  
Dr. Aloisius Goñi-Urrutia  
*Magister-Scholae, Scrius.*



Asistar Prantzisko Deuna.



# Asistar Prantzisko Deuna

---

## I

### PRANTZISKO DEUNAREN AURZAROA.

#### 1. Prantzisko Deunaren Jaiotza.

Italin, Unbri deritzan, ibaialde edeñaren erdian dago Asis uri polita. Uri onetan, 1182 urteko Agoñilaren 26'an jaio zan, Asistaña deitzen degun, Prantzisko Deun aundi-argia. Morikoni'tar Pedro Bernardo eta Burlemon'dar andre Pika izan ziran bere gurasoak. Aita jatoñiz Lukeña eta oial-salerosketari emana zan; ama beñiz Probentzako etxe aundizki batekoa omen zan.

Andre Pikak bi seme izan omen zituan: Joan (*Prantzisko*) eta Anjel; bigaena Asisen bertan ezkondu zan.

## 2. Lenengo gertaera arigariak.


Jaungoiko gure Jaunak Prantzisko gauza aundiak egiteko autatu zuan; eta bere bizitza guztia arigari izinguratu zuan.

Prantziskok aintzindaria, auzelaria, izan zuan; eta auzelari ori bere eritar bat izan zan: Prantzisko jaio auzean, Asistar gizon bat, uri bereko kaleak baena—«*Pax et bonum*»: «*Pakea tu ona*» - deadarka ibili zan luzaroan.

Andre Pika aurmiñez zegoalarik, gizaseme arotz bat eldu zan andre Pikaren etxera eta, ango moioiai aua aberetegian jaio bear zala esanik, izkutatu egin zan. Gizon aren esanera, andre Pika aldeko ukulu batera eramman zuten eta bereala zori onez aur-egin zuan. Prantzisko, Jesusen antzera, abere artean jaio zan, gau artan Portziunkulako Andre Mari eliza inguruan aingeru-abestiak, kantak, aditu omen ziran.

Aua bataiatzera zeramatarik, gizaseme ezezagun-itzaigari bat etori omen zan, aua berak jaso bear zuala ta, eta bataiatu ondoan berealaxe aldegin omen zuan.





Asistar Prantzisko Deuna bataiatzen. (1)

(1) Lekaroz'ko Irakasle argi Alegi'ar Rafael A. Agri zor dizkiogu 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 11, 13, 15 eta 16-gaŕen argazkiak.

Geroxeago beste gizaseme bat joan omen zan andre Pikaren etxera, aur jaio beña ikusi nai zuala ta. Aua bere besoetan artu omen zuan, bizkañean gurutzea egin, musu bat eman eta aurzaiari itzuli omen zion esanaz: Gaur Asisen bi aur jaio dira; bietatik bat, nere besoetan daukadan au, deun, santu, aundia izango da; bestea beñiz gaizkile aundia izango da. Eta berealaxe izkutatu egin omen zan.

Iru gizaseme arotz oiek iru aingeru omen ziran.

### 3. Prantziskoren izena.

Bataiatu zanean andre Pikaren lenengo semeari Joan izena eman zitzaion. Garai artan Pedro Bernardo Prantzi aldean zan, bere salerosketak egitera joana, eta etxeratu zanean bere lenseme Joani Prantzisko goitizena ipiñi omen zion, Prantziaren oroipezez. Baño beste batzuek diotenez, geroago, pantzeraz eñaz ikasi eta oso ederki egiten zualako, ipiñi omen zion izen ori. Añezkero guztiak Prantzisko esaten diote gure Santu oni.

#### 4. Prantziskoren aziera.

Andre Pika oso jainkozkoa zan; eta askotan joaten omen zan Aingeruetako Andre Mari elizatzora otoitz egitera; eta Andre Mariren bitartez iritxi omen zuan aúa izatea; eta gero bere lensemetxoan Andre Mari berari eskeiñi omen zion, aren ardurapean ipintzen zualarik.

Andre Pikak ardura aundia izan zuan bere semea ondo azitzen. Bere amagandik ikasi zuan Prantziskok Jaungoikoa eta Andre Mari maite izaten, onbidetik ibiltzen, beartsuak maitatzen eta beroiekiko eskuzabala izaten.

Adimena argitzeko garaia eldu zitzaionean, Asisko Jorje Deun ikastetxean sartu zuan Prantzisko, berari zegokion, ikasketa egiteko; eta gure mutilko onek laister erakutsi zuan bere buru-argi izatea eta ikasketarako trebetasuna.

---

## II

### **PRANTZISKO DEUNAREN GAZTAROA.**

#### **1. Prantziskoren izakera.**

Prantzisko amalau urteetara zanean aitari salerosketan laguntzen asi zan. Aita-semeak ardura berdiñaz lan egiten zuten; baño etziran mendu berekoak. Aita ospezaleagoa zan.

Gure Prantzisko gaztea, lagun arterako, izakera ta aztura ezin obeagokoa zan: itxura ederekoa, buru-argia, alaia, bizia, biotz-bera, zuña, zintzoa, itzekoa, eskuzabala ta guztien gogokoa: etabere gizabide oreakinguruko gazte guztien gain eskuarte aundia eman zion; eta guztiak beren buru ta eregetzat ospatzen zuten.

#### **2. Jolas-zalea.**

Prantzisko izugarizko jolas-zalea zan. Garai artako zaldun jolas-jaiak oso atsegin zi-

tzaizkion eta, jolasik iñun bazan, Prantzisko ere an zan.

Gañera oso apain-zalea zan. Iñun ziran oialik ikusgañienak bilatu oi zituan soñekoak egiteko; eta bere irabazi guztiak jolasetan, jaietan eta jantzietan joaten zitzaizkion. Pedro Bernardori etzitzaion oso atsegin bere semearen geiegikeria; eta askotan esaten zion, etzirudiela salerosle baten seme, egearena baizik; baño etzion gogoñezkorik egiten, naigaberik ez emateagatik.

### 3. Añitzekoa.

Alarik ere, Prantzisko gazteak alde onabatu, eta ikusgañia alare. Gizarteko zorapide artean, beste askoi eriotza ematen dien, atsegin-ontzia ezpañetan zualarik, ibili añen, Prantziskoren gogoak, *arimak*, etzuan erorikorik izan, añen garbitasunak etzuan orbanik eta zikiñik izan. Oitura gaiztoen etsai aundia izan zan; eta ura zebilen, tokian ez omen zan izketa ezegoki ta lizunik izaten. Ala diote bere lenengo lagun eta edestilariak.

Zeñen ikasbide edeña gaur eguneko gazteentzako!

#### **4. Beartsuekiko maitetasuna.**

Prantziskok, bere aurzarotik asita, bereziki maite zituan beartsuak eta eskaleak. Batez ere, Jaungoikoaren izenean eskatzen zionari, ezin ukatu zion bere eskupekoa.

Lanean, oso arazoturik, ari zan batean, Jaungoikoaren izenean eskatu zion, beartsu bat ezer eman gabe biali zuan. Berealaxe kezkatan jañi zan;—Prantzisko, gizon ori aundizki altsu baten izenean etoñi balitzaik, abegi ona egin bide ion; eñegeen Eñegearen izenean etoñi zaik eta oñela biali al dek?—bere buruari egiten ziolarik. Damuturik, jainkoizenekoaren bila joan zan eta arkitu zuanean eskesari edeña eman zion; eta geiago, Jainkoaren izenean eskatzen zionari, ezer ez ukatzeko asmoa artu zuan; eta asmo ori zintzo asko bete zuan.

#### **5. Lenengo nekeak.**

Ospea eta onaldiak, adimenik argienak

ere lausotzen dituzten, edari ordigariak dira; eta Prantziskoren gogoa ere ilundu bide zuten noski, Jaungoikoak nekezko edari gartzez nastu izan ezpalizkio.

Asistaren eta Perusataren artean guda sortu zan. Prantziskok, nai izan balu, bere burua arerioai saldu zezakien, irabazi aundia egiten zualarik; baño bere jaioteria biotzez maite zuan, eta eritarakin joan zan.

Burukaldia Perusarak irabazi uten eta Prantzisko beste lagun batzuekin aien eskuetan erori zan; eta urte betez Perusako espetxean egon bear izan zuan. Beste guztiak iluntasun eta naigabeak jo bazituan ere, Prantziskok etzuan gogolaitasuna galdu eta bere lagunak alaitu eta adoretzen arduratu zan.

Bere lagun aien artean bazan bat mendu gaiztokoa, guztiakin asareturik, inok itzik egin nai ezta zegoana. Prantzisko aren adiskide egin zan eta bere itz eta esan gozo-samuraz oneratu zuan, baita besteakin adiskidetu ere.

Perusako espetxetik 1202 urtean atera zan Prantzisko bere lagunakin.

III

**JAUNGOIKOAREN DEIA.**


**1. Jauna, zer egin bear det?**

Gau batez Prantziskok amets arigafia izan zuan. Iskiño ta guda-tresnaz, *armaz*, betetako jauregi aundi-edeña ikusi zuan. Iskiño guztiak gurutzeaz ikuñazturik zeuden. Prantziskok, zoraturik, jauregi ura ta tresna aiek norentzako ziran, galdetu zuan; eta «Iretzat eta ire mutilentzat» erantzun zion izkutuko otsak. Amets oñen ondorean gudari izatea erabaki zuan Prantziskok, bere buru-bidea ura izan bear zalakoan.

Garai artan *Aita Santu-zale* eta *german-zaleen* arteko guda, geña, sortu zan eta Prantziskok Aita Santuaren alde joateko asmoa artu zuan; eta bideratu zan.

Baño etzan ura, ari zegokion, bidea eta Jaunak ametsetan itz egin zion: «Prantzisko, nork saritu azake oparoago, nagusiak ala





«Jauna, zer egin bear det?»

moñoiak, aberatsak ala ezer ez duanak?» — galdetu zion otsak. «Nagusiak, aberatsak» erantzun zion Prantziskok. «Zergatik abil bada, nagusia eta aberatsa dan, Jaungoikoa utzirik, moñoa eta beartsua dan, gizonaren ondoren?» «¿Zer egin bear det bada, Jauna, zer egin bear det?» iardetsi zion Prantziskok. «Ire eñira itzuli adi eta an erakutsiko zaik zer egin bear dekan» erantzun zion goitiko otsak. Eta Prantzisko bertatik itzuli zan Asisa.

## 2. Jaungoikoari otoika.

Prantzisko, eñiratu zanean, luñeko zorapide eta utskerai ziñezko azken-aguñ egiñik, Subasi mendiko aitzulo batean izkutatu zan; eta ilabetez an egon zan Jaunari eskatzen, artu bear zuan, bidea erakutsi zezaiola, otoika. Etsaiak gogor eraso zioten, beñiro lengo jolas-jaietara joanerazteko; baño Prantziskok ere gogor egin zien eta garaitu egin zituan.

Erasoaldi oietako baten ondoan, Jesus Gurutzetua agertu zitzaion aren gogoa sendotzera; eta gure Jaunaren nekeak ikusteak

alako biotz-ikutua egin zion, auferakoan, Jesukristoren nekeaz oroitu orduko, negarari ematen zitzaiola.

### 3. ¡Nere beartsu maiteentzako!

Jesusen ageñaldi ori ezkerro, aitzulotik maizago ateratzen asi zan; eta bere atseginpuz aundiena eskaleai jaten ematen, apaiz beartsuai laguntzen eta eliz-maiak, aldareak, garbitzen eta apaintzen izaten zuan.

Bere aita etxean etzalarik, jatordukoan maia ogiz bete oi zuan; eta bein amak, ori zertarako egiten zuan, galdeturik: «Ama, biotzez maite ditudan, Jaunaren beartsuentzako» —erantzun zion Prantziskok erdi-pañez.

Jainkoizeneko beartsuen bizitza nolakoa zan oaríkasi nairik, bere gurasoen baime-naz, Eñomara joan zan. Uri artara zanean, Pedro Deunaren ilobi aúrean otoitz egiten luzaroan egon zan; eta aratzen ziranak ukar, *limosna*, txikiak uzten zituztela ikusirik, zuan diru guztia utzi zuan, inguruko guztiak

añiturik uzten zitularik. Ondoren eliz-atariko eskale sailaren tartean sartu zan, eta bere soñeko edeñak, txañenak zituanari, truk-eginda, egun artan guzian eskean ibili zan; eta biaramonean itzuli zan etxera.

Bein batez, Asis inguruan zebilelarik, legenardun bat ikusi zuan. Lenengoetan nazka aundia egin zion eta igeska asi zan. Baño bereala, bere burua mendeturik, zijoan zalditik jetxi, legenardunari eskuan muñ egin eta sari edeña emanik, beñiz zaldiratu zan. Legenarduna beñiz ikusteko, burua biurtu zuan; baño inguramari guztian etzuan iñor ikusi. Eta legenardun ura gure Jauna zala ezagutu zuan Prantziskok. Eta bere burua-  
ren atsegin-zalekeriak obekiago lotutzeko, ondorengo egunetan legenarduntegira joan eta eri guztiai beren esku nazkagañietan muñ egin eta eskupeko bana emanik, ateratzen zan.

#### 4. «Nere etxea beñitu ezak.»

Egun batez Prantzisko Damian Deun elizara sartu zan; eta Jesus Gurutzetuaren iru



«Zalditikjjetxi eta eskuan muñ egin zion.»

di aúrean belaunikaturik, gure Jaunari otoika ari zitzaion. Gurutzetuaren irudia bizitu zan eta Prantziskori onela itz egin zion: «Prantzisko, jeiki adi eta nere etxea beñitu ezak, luñera zetofek eta». Eta iru alditan ori bera esan zion.

Damian Deun eliza ura oso zaña zan eta erdi erorian zegoan. Prantziskok, eliza ura beñitzeko esan zitzaiola uste izan zuan.

Jeiki zan bada eta zeraman diru guztia bertako apaizari eman zion, Jesusen irudiari argi egiteko olioak erosteko esanaz. Gero etxeratu zan; oialik onenak artu zituan eta eñiz-eñi joan zan zaldiz aiek saltzera: eta oialak eta zaldia ere saldu zituan, eta egin zuan, diru guztia Damian Deungo apaizari eramane zion; baño apaiz jaunak etzion artu nai izan eta diru guztia leio batetik eliz bañura bota zuan.

### 5. Aitaren asaña.

Pedro Bernardo, bere semearen ibilera eta biziera aldatzea ikasirik, asañetu zan eta aren bila asi zan. Eta Prantzisko, aitaren bilduñez

aitzulo batean izkutatu zan. Eta bere ama andre Pikak bialita edo, bazkaria eramaten zion, etxeko moñoi batek beste iñork etzekien, aitzulo artan luzarosamañean egon zan.

Bakañaldi oñetan otoitzaren bidez Prantziskoren biotza adoretu zan; eta, edozein neke eramateko trebe, Asisa itzuli zan.

Asistañak lenengoetan, aren itxura zurpilmakala ikusirik, añiturik gelditu ziran; baño bereala, «erotu egin dek» esanaz, nausaka eta añi ta loi jaurtika asi zitzaizkion. Eta Prantziskok, itz erdi bat ere esan gabe, ixilixilik eramaten zituan, bere eñitañak egiten ziozkaten, laido ta irain guztiak.

Bere aita, gertaera oñen beñi izatean, amoruak artu zuan, eta, beste iñork baño geia-go zeatu eta laidoturik, etxeko zoko batean itxi zuan gure Prantzisko gaxoa.

Eztakigu itxi artan zenbat egunez egon zan. Pedro Bernardo etxetik atera zan batean andre Pikak bere semeari atea zabaldu zion eta azke utzi zuan, artu zuan, bidetik ibili zedin.

## 6. «Goietako gure Aita»

Pedro Bernardok, bere semea, artu zuan, bidetik aldentzea eziñezkoa zala ikusirik, izan zezakean, legezko ondorenarekiko eskubidea utzierazi nai izan zion; eta oñetarako Asisko Gotzai, *Obispo*, jaunaren auzitegira eramán zuan, Prantziskori, ordurako elizgizon egiña zalako, auzitegi ura zegokion da.

Zertarako deitu zitzaion, Gotzai jaunak esan zionean, Prantziskok onela erantzun zion: «Jaun ori, dedan guztia emango diot nere aitari, baita nere soñeko jantziak ere.» Ori esanik, baztar batera joan zan eta bere soñekoak erantzi eta, jantzizat geñiko zurdatz latza besterik etzuala gelditu zan, eta erantzitako soñekoak bere aitari eman ziozkan, garai berean, an zeuden, guztiai esaten zielarik: «Orain arte Pedro Bernardori aita esan izan diot; baña gaurtik auñera esan al izango det: «Goietako gure Aita, zuri eman dizkitzut nere ondasun guztiak, Zugan det nere uste osoa.»

Aren larugoña estaltzeko kapusai zar bat eman zioten Gotzai jaunarenean eta, ura





«Eregeen Eregearen oiularia nauk ni.»

jantzirik, beste ezertxo ere gabe, atera zan Gotzai-jauregitik, gertaera ikusi zuten, guztiak ariturik eta negaiez utzita.

Esan dan ori 1207 urteko Joñañean gertatu zan. Garai artan Prantziskok ogetabost urte zituan.

---

IV

**BIZIBIDE BERIA.**

**I. «Éregeen éregearen oiularia.»**

Prantzisko, luñeko ondasun guztiak utzi eta bere buruaren jabe egin ondoren, mendiz-mendi eta basoz-baso ibiltzen zan, Jaungoikoaren goraltzak kantari; eta askotan pozaren pozez esan oi zuan: «Jaun ori, zuk autsi dituzu nere lokañiak; zuri egingo dizut nik goraltz-oparia: eta Jaunaren izena aotan izango det.»

Oñela zebilén batean lapuñak atera zitzaizkion eta—«I nor aiz?»—galdetu zioten.—«Éregeen Éregearen oiularia nauk ni»—erantzun zien Prantziskok. Lapur odolgaitz aiek erotzat artu zuten gure Deuna eta makilaz, eta ondo zeatu ondoan, zulo batera bota zuten—«Gelditu adi or, Jaungoikoaren oiulari miñin ori»—esanaz. Lapuñak aldegin zutenean, Prantzisko zulotik atera zan eta len bezin alai, kantari jañaitu zuan.

## 2. Eriak zaitzen.

Gubioko adiskide batek, gure gizaseme ori ain lander eta zarpil ikusita, kupiturik, eremutaren soñekoa egin zion; eta Prantzisko jantzi arekin ibili zan bi urtez beartsuai laguntzen eta, batez ere, legenardun gaxo-efukariak zaitzen.

Espoieto aldeko gizon batek, aoa eta masalak erdi jan ziozkan, min-bizi izugaria zuan. Sendalari aipatuenakin ibili zan eta gauza on asko egin zituan Jaunagandik osasuna irixteko; baño alpeñik; aren miña gero-ago eta aunditzenago zan.

Asistar Prantziskoren otsa aditu zuanean, arengana joan zan. Prantziskok, oso kupiturik, samurki besarkatu zuan eta arpegian musu eman zion; eta eri gaxoa bat-batetan erabat sendaturik gelditu zan.

## 3. Eliza-beñtzalea.

Prantziskok Damian Deun elizako Gurutzearen esana oso gogoan zeukan; eta aldi baten buruan Asisa itzuli zan, Jaunak agindua egiteko asmoetan.

Bere eri guztian etxez-etxe ibili zan eliza beñitzeko ari eske. «Ari bat ematen didanak sari bat izango du, bi ematen dizkidanak bi eta iru ematen dizkidanak iru sari izango ditu» —esaten zien. Eñitañetatik batzuek laidoa besterik etzioten egiten; baño beste batzuek oso gogo onez laguntzen zioten. Damian Deunako lanak bukatu ondoan, inguruetako beste bi elizatxo ere beñitu zituan: oietako bigaena Portziunkulakoa, Aingeruetako Andre Mari, izan zan. Oso atseginitzaion Prantziskori Andre Mariren elizatxo ori eta beroñetan otoitzaldi luzeak egin oi zituan, goietako Izar argi aren oñetan auspezturik, zer bizibide zegokion erakusteko eskatzen ziolarik. Jaungoikoak entzun zituan Prantziskoren añen sutsuak.

#### 4. «**Bilaka nenbilena ta eskatzen nuana.**»


1209 urteko Otsailaren 24'gañen eguna zan. Prantzisko, berak eskatuta ematen zan, meza entzuten ari zan bere elizatxo maitean. Ebanjeliokoan apaizak Jesukristoren itz auek irakuñi zituan: «Ez eraman uñerik, zilañik

eta dirurik, ezta bide-zoñorik, ez bi soñeko ez oñetakorik, ezta makilarik.» — Itz oiek aditu orduko, Prantziskoren arpegia argitu zan; eta berak artu bear zuan, bizibidea uraxe zala ezagutu zuan. «Orixe da bilaka nenbilena, orixe da nik nai nuana» — esanaz, zerraman bide-zoñoa, makila eta oñetakoak bota zituan, soñeko zatar bat jantzi, geñia lokañiz lotu eta oñutsik, Asiserako bideari eman zitzaion, gizonai oben-nekea, *penitentzia*, egin beaña erakutsi nairik.

### 5. Pedro Bernardo.

Pedro Bernardok ezin bañendu zituan, bere seme Prantziskorekiko Jaungoikoaren burubide ta asmoak; eta bere semea, eskale egiñik, ain itxura txañean eta lagunabar gaiztoaren pañegañi, ikusteak gañez eragiten zion. Prantzisko ikusten zuanean beste alde batera jotzen zuan, aren ondotik ez igarotzeagatik, eta bein edo bein gaitzetsi ere egin zuan.

Aitaren asañe ta gaitzesanak Prantziskorin min aundia ematen zioten. Bere samintasun



Portziunkulako elizatzxoan Meza entzuten.

ori arintzeko gizon zar-beartsu bat arkitu zuan eta onela mintzatu zitzaion: «Ni zure seme bezela izango naiz; eta nere aitak gaitzesten nauan bakoitzean zuk onetsi nazazu.»—Eta agure beartsuak ala egin zuan.

Prantziskok anai bat bakaña izan zuan, Anjel, eta au ere aitaren antzeko odolgaitza zan noski.

Negu goiz batean Prantzisko elizan zegoan, soñeko txar bat beste estalgañirik gabe eta otz-dardaraz. Anjelek bere anaia ala ikusi zuanean, bere lagunari esan zion: — «Izerdi tanta batzuek saltzeko, esaiok.»— «Ez, nik etziekat nere izerdia gizonai salduko: zuek baño oparoago saritzen naun, Jaungoikoari saldu ziokat»—erantzun zion Prantziskok.

---



V

**LENENGO ORDENA**

**1. Elizaren egoera negargaria.**

Amairugañen eunkiaren asieran, izugañi negargaria zan kristauen gizabidea. Alde guztietan odolketa aundiko buñukak eta oitura txañak ikusten ziran: Eliza bera ere simonkerizko pipiak jota zegoen, eta bere gizonetatik asko, aberaskerizko eta lizunkerizko sitsak erdi-janik arkitzen ziran: eta alde askotan, Eliza erabat ondatu nai zuten gizon gaiztoak ugari sortzen ari ziran.

Laterango Joan Deun jauregi-eliza aundia luñera zetofela eta berak iñolaz ere ezin eutsi ziola, amets egin zuan bein batez Inozentzio III gañen Aita Santuak; eta izan ere alaxe zirudian.

**2. Prantzisko Deuna ta bere lagunak.**

Baño Jaungoikoak gizon bat sortu zuan, itxuraz aula eta kaskaña zana, eta gizon



«orek bere bizkañaz eutsi zion Eliza aundiari erori etzedin. Gizon ori Asistar Prantzisko Deuna zan.

Prantzisko, Jaunak eman zion, eginkizuna egiteko, Jesukristoren antzera, amabi lagun artu zituan, eta oiek izan ziran, beren goimaitasunaz, beartsu eta apal izateaz eta Aita Santuarekiko menpetasunaz kristauak eta gizadi guztia beritu bear zuan, Anaidi, *Ordena*, aundiaren oñari sendoak.

Asisko gizon aberats bat, bere eritar Prantziskoren onbiurtzeaz ariturik zegoan; eta, aren jainkozko izatea egiazkoa zan ala ez ikusteko, bein batez bere etxera eraman zuan ostatur, eta lotoki berean ipiñi zituan bien-tzako oatzeak. Oeratu ziran orduko, aberatsa gezuñezko lokoñonketan asi zan eta Prantzisko, bere ostalaria loak artu zualakoan, jeiki egin zan eta, luñean belaunikaturik, besoak zabaldurik eta gora begira egon zan gau guztian, otoika ta negañez, «Nere Jauna ta nere gauza guztiak» — askotan esanaz. Ori ikusteak aberatsari biotz-ikutu aundia egin zion; eta bertatik bere ondasun guztiak bear-

tsuai banatu eta Prantziskori jaiaiki zitzaion. Aberats ori izan zan Prantziskoren lenengo laguna. Bere izena Kintabaletar Bernardo zan.

Beste orenbeste egin zuan Kataniar Pedro gizon jakintsu ta zuzenak. Eta bereala batu zitzaizkien beste lagun asko.

Aien lenengo bizitokia txabola txar bat izan zan; eta bear zuten, ogia, an-emen lan egiñaz edo eskean, biltzen zuten.

Prantziskok bere lenengo Anaidikoai *Anai Txikaren* izena eman zien.

### 3. Aita Santuaren oñetan.

Prantzisko Deunak bazekian Aita [Santua dala, okertu eta erori ez diteken, oñari sendoa. Oregatik, Anaidi beria sendotzen ari zala ikusirik, berozentzat Zuzenbidea egin eta Aita Santuari erakustea erabaki zuan, arek ontzat eman zezan.

Ain taju txaroko gizon ura lenengo aldiz ikustean, irugarren Inozentzio Aita Santuak, entzun ere nai gabe, biali egin zuan bere aurretik; baño gau artan Jaungoikoak Aita

Santuari ametsetan adierazi zion, itxura txarreko gizon ura nor zan; eta biaramonean beregana etoñierazi zuen eta oso abegi samuía egin zion.

Lenengoetan geiegizkoa eta gizonentzat eziñezkoa iruditu zitzaion Aita Santuari, Prantziskok eta bere lagunak artu nai zuten, bizibidea; baño bereala ontzat eman zuan itzez, Eliza beñitu bear zutenak Prantzisko ta bere Anaiak zirala esanaz.

Aita Santuak berak artu zizkien lekaide-iskintsariak; eta alde guztietan oben-nekea, *penitentzia*, egin beaña erakusteko eskubidea eman zien eta biotz-biotzez onetsirik, oso laztanki agurtu zituan Aita Santuak Prantzisko eta bere lagunak.

Geroago ere askotan joan zan Prantzisko Aita Santuarengana, bere menpekotasuna erakustera.

Urte batzuen buruan, Prantzisko Deunak, Jaungoikoak argiturik, Anaidiaren Zuzenbidea beñitu egin zuan, eta 1223 urtean irugañen Onorio Aita Santuak idazkiz ontzat eman eta sendetsi zion.

Zuzenbide ori etzan Prantziskok berak asmatua izan; Prantzisko Deunak berak zionez, Jaungoikoak erakutsia izan zan.

Zuzenbide ori bera da gaur egunean Prantziskotar Anai Txikar guztien Zuzenbidea.

#### 4. Anaidia ugaritzen.

Prantzisko ta bere Anaien, praileen, lenengo etxea Portziunkulako elizatxoan, Beneditar lekaideak, praileak, emana, izan zan.

Anaidi beñiaren izen ona ta onbide-urina gero ta geiago zabaltzen ari zan; eta alde guztietatik zetorkion Prantzisko Deunari giza-semeak, bere menpean artzeko eske. Prantzisko Deunak, artu baño len, egokiak ziran ala ez ezagutu egin nai izaten zituan; eta oretarako bide arigariak erabiltzen zituan.


Bein batez bi lagun etori zitzaizkion Anaidian sartu nai zutela ta. Prantzisko Deunak, baratzara joan eta aza batzuek buruz-bera aldatzeko, agindu zien. Batek berealaxe egin zuan agindu zitzaiona; baño besteak

etzuan egin nai izan, bere aldean etzerala azak oñela aldatzen esanaz. Prantzisko Deunak lenengoa artu zuan eta bigarrena bialia egin zuan.

Eta lenengoak zuztañez gora aldatu zituan azak itsatsi omen zuten eta izugarizko buru ederrak egin omen zitzaizkien.

Sartu berientzako eginkizunik gogorrena legenardunak zaitzea izaten zan.

Bein batean bazan eritegian legenardun bat, bere ardura zuten, praleai laidoka eta gaizkiesaka, ixildu gabe ari zitzaiena. Praleak, beren buruai zegokiena, onez eramaten zuten; baño, Jaungoikoaz eta Andre Mariaz esaten zituan, biraoak ezin eraman zituzten eta Prantzisko Deunari esan zioten zer gertatzen zan. Prantzisko Deuna joan zan eria ikustera; eta, arek esaten ziozkan, gauza on guztiai legenardunak gaizki erantzuten zien. Prantzisko Deunak gizon ura etsaiak artuta zegoala ezagutu zuan; eta auñerakoan, beste Anaien, praleen, orde, berak zaituko zuala esan zion.—«Baño zer egingo didak ik besteak baño geiago?»—galdetu zion



Prantzisko Deuna legenarduna garbitzen.

legenardunak.—«Nai dekan guztia»—erantzun zion Prantzisko Deunak.—«Garbitu idak bada gorputz guztia, usai txarez ezin egon nauk eta»—esan zion legenardunak. Prantzisko Deuna asi zitzaion garbitzen; eta arek bere eskuz ikutu alan, eriaren larua sendatu ta befitu egin zan; eta garai berean gogoko, animako, gaitza ere sendatu egin zitzaion; eta legenarduna izan zanak damutasunezko negar aundiak egin zituan.

Prantzisko Deunak bere Anaiak, praileak, biñaka edo launaka, eñiz-eñi biali oi zituan, gizonai oben-nekea, *penitentzia*, egiteko esatera. Eta batak bestea, amak bere seme kutunena baño maiteago izan bear zutela esan oi zien.

Prantzisko Deunaren Anaidi beñia ainbeste ugaritzen ari zan, amar urteen buruan Portziunkulako Batzañean bost mila Anai, praile, bildu zirala.

### 5. Lenengo Ordenaren eragipena.

Asistar Prantzisko Deunaren lenengo Anaiak, Ordenak, sortu zanetik asita, gizarte-



ko maia guztietan eta izakera maia guztietan eskuarte aundikoa izan da garai guztietan.

Anaidi ontakoak ziran Paduako Antonio Deuna, Bonabendura Deuna eta beste deun eta jakintsu asko. Anaidi onek bost Aita Santu, befogeta amar bat janzkordun, *kardenal*, eta gotzai, apezpiku, asko eta asko eman diozka Elizari.

#### 6. Gauñ egunean.

Lenengo Anaidiak, Ordenak, iru adar ditu: Konbentualena, Leontañena eta Kaputxinoena; eta iru adarretakoak dira Asistar Prantzisko Deunaren seme bidezkoak.

Konbentualak 1.700 lagun dira, Leontañak 19.000 eta Kaputxinoak 10.500. Guztitarra 31.200 dira Asistar Prantzisko Deunaren lenengo Anaidiko, Ordenako, Anaiak, Praileak.

Gure Jaunak esan zion Prantzisko Deunari: «Nik onetsiko ditut zure anaidiari laguntzen diotenak, eta gaitzetsiko ditut bere kaltez ibiltzen diranak.»

VI

**PRANTZISKO DEUNA MIXIOLARI.**

**1. Gizonak zeruratzeko gogo bizia.**

Lur onetako izakirik, gauzarik, bikañenak gizonen gogoak, *animak*, dira; eta garai be-rean, eginkizunik jainkozkoena gogo oiek bide onetik beren elburura, zerura, Jaungoi-koarengana eramatea da. Ori zan gure Jau-nak luñean izan zuan egitekorik bereziene-takoa; eta ofetarakoxe eman zuan bere bi-zia gurutzean josita.

Jesukristoren jañaille zintzo, Asistar Pran-tzisko Deunak askotan esan oi zuan ez dala egin gabe utzi bear, gogoen, *animen*, one-rako egin diteken gauzarik. Eta nork adiera-zi, gizonak bide oneratzeañen, Prantzisko Deunak bere buruari eman zizkion nekealdi aundiak, nork zenbatu obendarien, *pekata-rien*, alde Jaunari egin ziozkan, otoitzak eta ardi galduen bila egin zituan ibilaldiak?

## 2. Eriz-eri.

Prantzisko Deuna eriz-eri ibili zan Itali guztia bařena Ebanjelioa izkintzutzen, *predikatzen*; eta bere itz bero-eragikořaz eta egiten zituan, gauza arigaři aundiaz, gaizta-keriari emanik zeuden, asko eta asko onbiurtu, biotz gogor asko damutasunez urtuerazi eta gořoto biziak paketu zituan.

Bein batez Prantzisko Deuna Arezzora joan zan, Silbestre Anaia lagun zualarik. Eri ontakoak, erditurik, izugařizko buřuka egitera zijoazten. Eta bi aldetako taldeak sututzen etsai sail aundia zebilela ikusi zuan Prantzisko Deunak; eta bere lagunari etsai aiek uxtzeko esan zion. Silbestre Anaia uriaren ařesi gařera igo zan eta onela deadar egin zuan: «Emen zabiltzaten, etsai gaizto-zikin oiek, aldegin ezazute emendik. Jaungoikoa-  
ren eta aren mořoi zintzo Prantziskoren ize-  
nean agintzen dizuet.» Etsaiak iges egin zuten eta eritařak Prantzisko Deunaren aurrean bide onez pakea egin zuten.

Beste bein, Bebaņa erian neskato itxu

bati, begiak lixtuz igurtzirik, ikustea eman zion. Ternin, orma batek azpian artuta, il-dako gizaseme gazte bat piztu egin zuan. Beste bein batean beñiz, Bolonin mutilko itxu bati, gurutzea egiteaz bakañik, argitu ziozkan begiak eta, biotzeko miña zuan, bat sendatu zuan.

### 3. Atzeri aldeetan.

Prantzisko Deunak, ilunpetan bizi ziran, sinisgabe efukañiai sinismen argia eramán nái zien eta garai berean, Jesukristogatik bere odola ixuririk, martiri-eriotza irabazi nái zuan.

Oñetarako 1212 urtean, Aita Santuaren baimenaz, eguzki aldeko maomatañen arte-ra joateko asmoz itxasoratu zan beste lagun batekin; baño itxasaldi txañak eragotzi egin zien asmo zutena egitea.

Urango urtean Mañoko aldera joatea erabaki zuan eta bideari eman zitzaion; eta Euskal-Eñia zear igaro zan. Bidenabar Zangozarañai itz-egin omen zien eta Zangozazañ'ean bere Anaiantzat etxetxo bat irasi omen

zuan; bufuka gofian zebiltzan, Iruñako au-  
zoak paketu omen zituan eta Iruñafak, es-  
kuerakutsiz, uritxipean etxe bat jaso omen  
zioten bere Anaientzat, *Prañeentzat*; eta  
gure baztar maite ontako beste efi batzue-  
tan ere ibili omen zan. Aprikara igarotzeko  
asmoetan zebilelarik, gaitz luze neketsuak  
artu zuan eta, Jaunaren naia ezagaturik,  
Italiara itzuli zan.

1217 urtean Prantzira joateko bideratu  
zan; baño Florentzitik itzuli egin bear izan  
zuan, Ugolino janzkordunak, *kardenalak*  
ofetaratuta.


#### 4. Eguzki aldean.

Bi urteen buruan beñero Eguzkialderako  
itxasoratu zan eta Ejiton legoferatu zan. Ga-  
rai artan kristau gurutzedunak maomata'fen  
aurka gudan, *geñan*, zebiltzan. Alarik ere,  
Prantzisko Deunak eta bere lagunak etsai  
sabelgoñi aien artera jo zuten; eta maoma-  
tar sail bat berealaxe aien gañera etoñi zan;  
biotzik gabe iraindu ta jo zituzten eta, katez  
loturik, beren jaun Soldanen auñera eraman

zituzten, Prantzisko Deunak ala eskatu zielako.

—«Nork biali au? Zertara ator onera?»— galdetu zion Soldanek Prantzisko Deunari. «Jaungoikoak biali nauk iri eta ere menpekoai Ebanjeli-egiak erakustera»—erantzun zion Prantzisko Deunak. Eta bertatik asi zitzaion Jesukristoz eta egiazko Jaungoikoaz itzegiten.

Jauntxo ura, Prantzisko Deunaren itzegiteaz ariturik, gelditu zan; eta gure Deuna bere jauregian geldituerazi nai zuan.—«Ik eta ire eñiak Jesukristoren sinistea, *fede*a, artzen badezute, pozik geldituko nauk»—erantzun zion Prantzisko Deunak. Eta gero esan zion: «Egiazko jaurespidea, *erlijio*a, kristauena dana ezin sinistu badek, su aundia eginerazi ezak eta ni eta ire sasi-apaizak bertan sartuko gaituk; eta ere gabe ateratzen danaren jaurespidea, *erlijio*a, izango dek egiazkoa.» Baño Soldanek etzuan nai izan, bere sasi-apaizak naiko etzutelakoan eta, bera kristau egiten bazan, eñi guztia nastuko zitzaion bildurez.



Soldanen aurean.

Soldanek Prantzisko Deunari, eskuerakutsiz, uré eta gauza eder asko eskeiñi zizkion; baño Deunak etzion ezertxo ere artu nai izan. Ori ikustean len baño afituagorik gelditu zan maomatafen jauntxoa; eta Prantzisko eta bere laguna omen aundiz kristauen gudal-etzauntzetara eramateko agindu zuan.

Prantzisko Deuna eta bere laguna, nai ziztuzten, neke ta eriotzaren ordezt, omena eta aintza besterik egin etzitzaielako, oso naigabeturik itzuli ziran maomatafen artetik.

Gertaera oien buruan Prantzisko Deunari Jesukristo agertu zitzaion eta Italira biurtzeko esan zion. Eta Prantzisko Deuna, Jerusalem eta beste toki deunak ikusi ondoren, Italira itzuli zan.

### **5. Prantzisko Deunaren semeak.**

Lenengo Ordenako Anaiak, beren Serapindar Aita Prantzisko Deunagandik ondoretu zuten, gauzarik ederenetakoa gizonak zeruratzeko ardura bizi-bizia izan da. Lur onetan ez da Prantziskotarak ikusi gabeko



baztañik. Prantziskotañak mixio-lanetan beti beste guztien aurretik ibili dira. Ezin zenbatu ala dira, garai guztietan Jesukristoren Ebanjelioa erakusteagatik beren bizia eman duten, Prantziskotañak.

Gaur egunean 3.400 baño geiago dira mixiotan dabiltzan Prantziskotar Anai Txikañak: Prantziskotar Leontañak 2.284 mixiolari dituzte eta Prantziskotar Kaputxinoak 1.140 mixiolari.

---

## VII

### DEUNTASUN-EZAUPIDEAK

#### 1. Prantzisko Deuna ta abereak.

Asistar Prantzisko Deunak luŕeko gauza guztiak bere senideak deitzen zituan: eguzkia senidea, sua senidea, ura senidea, belarzuaitzak senideak, abereak senideak, arainak senideak, egaztiak senideak; gauza guztiak Prantzisko Deunarentzat senideak ziran eta senideak bezelaxe maite zituan.

Eta adimen gabeko izaki, gauza, oiek, adimendunak balira bezelaxe, erantzuten zioten, Prantzisko Deunak zien, maitetasunari. Erbi eta akuriak aren soñekoaren aloz artean izkutatzen ziran; artalde baten ingurutik igarotzen bazan, ardi guztiak lasterka aren bidera joaten ziran; eta Prantzisko Deunak atsegin aundia artzen zuan basoetako abere artean.

Bein batez Benezi ondoan txori sail aundia arkitu zuan, eta txori aiek izugañizko iskanbila ateratzen zuten. Prantzisko Deuna



Prantzisko Deuna txoriai itz egiten.


aien artera joan zan eta ixilik egoteko esan zien arek eta aren lagunak beren otoitzak egin artean; eta txori guztiak ixil-ixilik egon ziran Prantzisko Deunak beñiz kantatzeko esan zien arte.

Beste bein Albanon eñari itz-egiten ari zan eta iñork ezin aditu zion, inguruan zebiltzan, enadak egiten zuten, zaratagatik. —«Enadak, nere senideak, zuek naikoa itz-egin dezute; orain nik itz-egin bear det eta ixil-ixilik entzun ezazute Jaungoikoaren itza»—esan zien Prantzisko Deunak egaztitxo aiei; eta enada aiek ez omen zuten ego bat ere mugitu Prantzisko Deuna itz-egiten aritu zan bitarte guztian.

## 2. Txoriai itz-egiten.

Bein batean Prantzisko Deunak bidean txori sail aundia ikusi zuan eta aien edertasunaz añiturik gelditu zan. —«Itxoin ezazute emen—esan zien bere bide-lagunai,—nere senide egaztitxoai itz egin bear diet eta.»

Prantzisko Deunaren otsera txori guztiak aren inguruan bildu ziran; eta gure Deuna



Gubioko otsoa.

onela mintzatu zitzaien: «Egaztitxoak, nere senide maiteak, Jaungoikoak mesede aundiak egin dizkitzute; Arek jantzi eta janaria ematen dizute; oregatik bada, toki eta une guztietan Jaungoikoa onetsi eta goratu bear dezute.»

Ondoren Prantzisko Deunak onetsi zituan egaztitxoak eta, egaldatzeko esan zienean, guztiak kantari sakabanatu ziran.

### 3. Gubioko otsoa.

Gubio aldean, kalte aundiak egiten zituan, izugarizko otsoa zebilen; eta eñi guztia pizti arek izu-ikaraturik zegoan.

Prantzisko Deuna, aratu zan batean, ori jakiñik, eñitar gaxo aietaz kupitu zan eta otsoaren bila joan zan. Bere ustea Jaungoikoagan zualarik, batere bildurik gabe, pizti gaiztoaren aitzulora urbildu zan; eta otsoa, Prantzisko Deuna ikusi orduko, bere zokotik atera zan eta, aoa zabal-zabal egiñik, aren gañera zetoñen. Baño Prantzisko Deunak bere eskuaz gurutzea egin zion eta beragana deitu zuan:—«Otso anaia, ator one-

ra eta ez iñori gaitzik egin»—esanaz. Eta otsoa, bildotxa bezelaxe, Prantzisko Deunaren oñetan etzan zan. Bitarte guztian eñitak urutisamañetik begira zeuden izaturik. Prantzisko Deunak eñiaren eta otsoaren artean itunpen bat egin zuan. Eñiak otsoari, bear zuan, janari guztia emango zion itza eman zuan; eta otsoak beñiz pakean ibiliko zala eta iñori etziola kalterik egingo agindu zuan. Eta bi aldeetakoak bete zuten beren itza. Otsoa, bizi zan bitartean, Gubioko kaleak bañena, etxez-etxe pake-pakean ibili zan; eta aren eriotzak Gubiotañai min aundia egin zien.


#### 4. Ilak piztutzen.

Prantzisko Deuna Gaetan zan batean, bere prañeentzat etxea egiten ari ziran langile-etako bat, abe batek azpian artuta, lerturik gelditu zan. Beste langileak aren gorputzila bere etxera zeramatela, bidean Prantzisko Deuna arkitu zuten. Deunak naigabe aundia artu zuan eta ezbear ura osatzeko Jaunari otoi egin zion. Ondoren ilari gurutzea egni

zion eta, eskutik elduta,—«Jeiki adi»—esan zion. Ila jeiki zan eta pozaren pozez lengo lanera bertatik itzuli zan.

Beste bein Prantzisko Deuna zaldun baten etxera sartu zan, zerbait atsedetera; eta etxe artakoak oso abegi ona egin zioten; eta bazkaria ere eskeiñi zioten. Prantzisko Deunak onartu zuan eskeiñia; baño aurrez eñiri itz-egin nai izan zion. Zalduna ta bere etxe-ko guztiak ere entzutera joan ziran. Eta etxean neskamea ta urte gutxidun aur bat, zaldunaren seme bakaña, gelditu ziran. Eta neskamea ere, aña bakañik utzita, Deunari entzutera joan zan. Nagusiak baño lenago etxeratu zan neskamea eta aur gaxoa ur irakiñetan, ilda, arkitu zuan. Izu-laboriak arturik, añaaren gorputzila kutxa batean izkutatu zuan. Neuri gabe aundia izan zan gurasoen naigabea, gertaeraren beñi izan zutenean; baño beren samintasuna estali al izan zuten Prantzisko Deunarekiko itzalaz. Bazkaltze-koan, Prantzisko Deunak sagañak nai zituela esan zion zaldunari; eta etxe artan sagañik etzala erantzun zioten.—«Kutxa ori za-





«Eskuetan sagar bana zituela arkitu zuan bere semetxoa.»

baldu ezazu eta or arkituko dituzu sagarak»  
—esan zien Prantzisko Deunak, aur ila ze-  
goan, kutxa erakutsiaz. Zaldunak, aren esa-  
nera, zabaldu zuan eta bi eskuetan sagar  
bana zituela, bizi-bizirik arkitu zuan ilik sar-  
tu zuten, aña.

---

## VIII

### **BIGAREN ETA IRUGAREN ORDENA.**

laungoiko gure Jaunak etzuan Asistar Prantzisko Deuna gizonak bakañik onbiurtzeko biali lur onetara; emaztekiei ere eratu bear zien deuntzeko, santu egiteko, bidea eta gizartea bera ere beñitu bear zuan.

#### **1. Klara Deuna.**


Prantzisko Deunak emakumeak deuntasuneratzeko Bigaren Ordena, Aizpadia, asmatu zuan; eta arazo onetan Asis bereko aundizkietako gizalaba argi bat izan zuan lagun: Klara Deuna.

Klara jainkozko neskatxa zan. Gorputzez oso liraiña ta edeña zan eta bere gurasoak beretzat ezkontza on bat eratu nairik zebiltzen. Baño Klarak beste asmo batzuek ziztuan eta emezortzi urteetan bere gizkarbitasuna egegeen egegeari eskeiñi zion.

Jaungoiko gure Jaunak Klarari gogo-zuzendaritzat bere eritar Prantzisko Deuna bializion.

Prantzisko Deuna 1212 urtean Asisko Jorje Deun elizan garizumako itzaldiak egiten ari zan; eta eritar guztiak afiturik zeuzkan bere itz ederaz.

Gau batean Klara ere entzuleen artean arkitzen zan eta, jainkozko gizon aren itzegiteaz zoraturik, bere gogo-zuzendaritzat artzea erabaki zuan. Asmo ori, bere aideo andre alargun Bonari agertu zion; eta arekin batean izkutuka Aingeruetako Andre Mari elizara joan zan; Prantzisko Deunai bere gogo-asmoak azaldu ziozkan eta Prantzisko Deunak goiargiz ezagutu zuan Jaungoikoak neskatx eder aretzaz zer egin naitzuan. — «Ene alaba ori, nik ire gogo on oiek sinistea nait baden, soñeko eder oiek erantzi, zakukia jantzi eta etxez-etxe eskean ibiliadi» — esan zion Prantzisko Deunak agurtzerakoan. Eta Klarak zintzo-zintzo egin zuan esan ori.



**Klara Deunari monja-soñekoa jantzitzen.**

## 2. Aizpadiaren astapena.

Garizuma bereko Abafigande gauean, efi guztia lotara zanean, Klara, bere soñeko edeñenak jantzi ta, eta bere adiskide on, Bona lagun zualarik, bere jauregitik ixil-ixilik atera zan eta Portziunkulara joan zan.

Prantzisko eta bere Anaiak aren zai zeuden. Eldu zanean guztiak elizaratu ziran; eta Andre Mariren aldare auñean Prantzisko Deunak Klarari bere ile luze-edea moztu zion; soñeko latza jantzi eta geria lokari zatañaz lotu eta burua zapi lodiaz estali zion. Eta neskatx gizkarbi-eder arek, pozaren pozez, bere eskeiñitza eman zuan.

Gero bere bitxi eta soñeko edeñak beartsuai banatu zizkien eta Prantzisko Deunak beneditar aizpa-etxe, *monja-etxe*, batera eramán zuan.

Gurasoak alegin guztiak egin zituzten, Klara bizibide artatik ateratzeko; baño ezin izan zuten.

## 3. Aren aizpa Ines.

Klarak bazuan amalau urteko aizpatxo bat,



Ines zeritzona; eta egun batez, ura bezela-  
xe bizi nai zuala ta, beragana joan zitzaion.

Zorioneko aizpa oien etxean, ori jakin za-  
nean istilu gofia sortu zan. Aita zoratu zan;  
eta amabi gizon biali zituan, bere alabak  
zeuden, aizpa-etxera, bizirik ala ilik, Ines  
jauregira] ekañi zezaten.

Gizon aiek, ezeren begirapenik gabe, aiz-  
pa-etxera sartu ziran; Inesi iletatik eldu zio-  
ten eta nařaztaka atera zuten. Baño bereala  
Inesen gorputza ain aztun, *pisu*, egin zan,  
guztien artean mugitu ere ezin zutela. Or-  
duan aren osaba batek besoa jaso zuan ez-  
pataz jotzeko eta besoa igarturik gelditu zi-  
tzaion.

Ala zeudelarik, Klara etoñi zan eta, arek  
esan zizkienaz ikaraturik, amabi gizonak  
andik alde egin bear izan zuten.

Bi aizpak beñiz, Jaungoikoagatik alako ne-  
keak eramateko gai izan ziralako pozez zo-  
raturik, aizpa-etxera itzuli ziran.

Geroago aideen asareáa ařimen biurtu zan  
eta gurasoak ere oneratu ziran.

Prantzisko Deunak Inestxo ere, Klara be-



zelaxe jantzi zuan eta bi aizpak, berak beñitutako, Damian Deun eliza ondoko etxe batean ipiñi zituan. Eta berealaxe asi zitzaizkien beste lagun asko etortzen.

Klara etzan etxe artatik atera bere bizitza guztian.

Zorioneko bi aizpa oiek orain aldareetan daude.

Orixe izan zan bada, Aizpadi beñiaren asiera.

#### 4. Aizpadiaren zabalpena.

Prantzisko Deunak bigarren Ordenako Aizpai *Andere Beartsuen* izena emen zien, eta Anai Txikarrenaren antzeko Zuzenbidea egin zien.

Geroago Klaretañen izena eman zitzaien.

Bigarren Ordena Lenengoarekin batera zabaldu zan; eta eunkiak zear, gora-bera aundiak izan ditu.

Gaur egunean talde berezietan zatiturik daude. Ugarietak Prantziskotar Klaretañak eta Prantziskotar Buruñurdunak, *Kaputxinak*, dira.



### 5. Irugañen Ordena.

Prantzisko Deunaren izena ta Lenengo Ordena zabaltzenago ta beroñetan sartu-naia kristauen artean geitzenago ta aunditzenago zan. Eta asko, pozik sartu bide ziranak, beren eginkizunak eragozten zietelako, ezin sartu ziran.

Prantzisko Deunak, berari jañaitzeko gizartea ezin utzi zutenenzat, Senidetza beria asmatu zuan: Irugañen Obenneke Senidetza, *Irugañen Ordena*.

### 6. Senidetza onen asiera.

Poggi-Bonzi eñian bizi zan Prantzisko Deunaren gazte-lagun saleroslea, Lukesi zeritzona. Lenago zekena ta kalte-zalea izan zan; baño, erabat besteturik, on-egiteari osoro eman zitzaion; eta aren eskuzabalta-suna geiegizkoa zalata, etzuan begi onez ikusten bere emazteak. Bein batean, etxeko ogi guztia jainkoizenekoai emanda gero, beranduago etoñi ziran, eskaleai ere emateko, senañak agindu ta, ogi-kutxara joan zan, eta,

uts-utsik gelditu zan, kutxa ogiz bete-beterik arkitu zuan. Añezkero, nor baño nor eskuzabalago ibili ziran senar-emazteak.

Senar-emazte oiek izan ziran Irugañen Senidetzari asiera eman ziotenak. Prantzisko Deunak biai soñeko luze urdin-areta jantzi zien eta geria lokariz lotu zien; eta geroxeago Zuzenbidea ere eman zien.

Ori izan zan, gaur egunean ain edaturik dagoan, Asistar Prantzisko Deunaren Irugañen Oben-neke Senidetzaren asiera.

### **7. Irugañen Senidetzaren eskuartea.**

Prantzisko Deunaren Senidetzak jaio ta berealaxe asi zan zabaltzen eta alde guztietan on aundia egiten. Aita Santuak ontzat eman eta eskar ugari-aundiz edertu zuten.

Amairugañen Leon Aita Santu irugañendarak Prantzisko Deunak egindako Zuzenbidea beritu egin zuan, eta ori da, gaur eguneko irugañendarak duten, Zuzenbidea.

Senidetzak au garai guztietan indar aundikoa izan da; eta beroretan gizarte-mala guztietako gizon-emakumeak sartu izan dira:

Aita Santuak, Gotzaiak (*Obispoak*), éregeak, aundizkiak, jakintsuak eta nekazariak.

Prantzisko Deunaren Irugañen Senidetza (Ordena) da Irugañen Senidetza guztietan zañena eta Aita Santuak geiena goratu dutena.

Amabostgañen Bedito Aita Santuak 1921 urtean, kristau guztiak Irugañen Ordena on-tan sartzea nai zuala esan zuan, eta gaurko gure Aita Santu Pio XI'gañenak, gure Aita Prantzisko Deunaz egin duan, idazki edeñ-bikañean dio, urte ontan, al duten, kristau guztiak Irugañen Ordenan sartu bear dutela; eta gazteegiak diralako, Senidetza ortan sartu ez ditezkenak Prantzisko Deun beraren Lokañidun-goisenidetzan sartu bear dirala, geroago Irugañen Ordenan sartzeko.

## IX

### PORTZIUNKULAKO BARKAPENA.

#### 1. Lenengo ikuskaria.

Mila befeun da amaseigaren urteko udagau eder batez, Prantzisko Deuna aitz-zulo batean otoitz egiten ari zan. Alako batean aingeru otsa aditu zuan:—«Elizara, Prantzisko, elizara»—ziona. Portziunkulako elizatxora sartu zan eta aldare nagusi gañean Jesus gure Jauna eta aren Ama Andre Mari arkitu zituan, aingeru sail aundiaz inguraturik. Prantzisko Deunak, pozaren pozez, lufean auspezturik, agur egin zien.

—«Prantzisko, nai dekan eskaña eskatu zaidak eta emango dikat»—esan zion Jesukristok Prantzisko Deunari.

—«Iru bider Deuna zeran, nere Jaun ori, gai naizen lotsarik aundienaz eskar auxe eskatzen dizut: Biotz-damuturik, aitortu eta elizatxo onetan sartzen diran, guztiak beren oben, *pekatu*, guztien barkapena iritxi deza-



«Elizara, Prantzisko, elizara.»

tela»—erantzun zion Prantzisko Deunak; eta eskar orixe irixteko, beren bitarteko izateko eskatu zion Andre Mariri.

—«Prantzisko, gauza aundia eskatzen didak; baño oraindik aundiagoak iritxi bear dituk. Eskatzen didakan, nekazka (*barkapena, induljentzia*) ematen dikat; baño nere ordeko Aita Santuak ontzat eman eta sendestekotan»—iardetsi zion Jesukristok.

Eta ikuskaria izkutatu egin zan.

## 2. Aita Santuaren aurrean.

Ufengo goizean, eguna zabaltzen asi orduko, Prantzisko Deuna Perusarako bideari eman zitzaion, garai artan uri ofetan zan Aita Santua ta; eta Onorio irugañenari, nekazka aundi ura ontzat eman zezala eskatu zion.

—«Eskatzen dekana gauza aundia dek eta orain arte etzaiok iñori eman»—esan zion Aita Santuak.

—«Ofegatik bada ez dizut nere izenean eskatzen, Jesukristoren izenean baizik»—erantzun zion Prantzisko Deunak.

Aita Santuak ontzat eman zuan nekazka aundi ori eta egun baten baruan irabazi al izan bear zala erabaki zuan.

### 3. Neguko arosak.

Nekazka irabazi bear zan, eguna oraindik erabaki gabea zan; eta Prantzisko Deuna goitik aditzera emango zitzaiolakoan zegoan.

Lenengo ikuskaria agertu zitzaionetik sei ilabetera, negu-gau otz batez, Prantzisko Deuna otoitz egiten eta bere gorputza gogorki zigortzen ari zalarik, aingeru itxuran etsaia agertu zitzaion; eta gorputza nekearek nekez ez ondatzeko eta Jaungoikoa luzaroagoan moñoitu al izateko, bere biziari ondo begiratzeko esan zion.

Eta Prantzisko Deuna, gelatik atera eta soñekoa erantzirik, elur eta arantza artean iraulkatu zan. Orduan inguru guztia beritu zan eta, aren odolaz bustitako, sasia arosa txuri ta goñiz jantzi zan. Aingeruak etofi zitzaizkion eta elurá baño txuriagoko soñekoa

jantzi zioten eta bereala elizara joateko esan zioten.

#### **4. Bigarren ikuskaria.**

Prantzisko Deunak ogetalau arosa, amabi txuri eta amabi gofi, artu zituan eta oiñ-oial edeñaz estalia zirudian, bidetik elizaratu zan.

An zeuden Jesukristo eta bere Ama aingeruz inguraturik. Prantzisko Deunak, auzer agur egiñik, arosa arigariak Jesukristori eskeiñi ziozkan eta nekazka aundia irabazteko eguna, azen! erabaki zezala eskatu zion. Eta gure Jaunak, egun ori Dagonilaren bigarren eguna izan bear zala, esan zion.

Prantzisko Deuna beñiro Aita Santuarengana joan zan eta Onorio irugarrenak egun ori ontzat eman zuan.

#### **5. Nekazka nola irabazi bear dan.**

*Noiz irabazi:* Dagonilaren (Agoztuaren) lenbiziko eguneko eguerdiko amabietatik astita bigarren egun guzian, uzeno gauerdiaño.

*Nun irabazi:* Lenbiziko eta Bigarren Or-



denako Prantziskotañen elizetan. Gañera Iru-  
gañendañak, Irugañen Ordena eliz-legez ja-  
ñirik dagoan, elizan eta, Irugañen Ordena  
eliz-legez jañia ezpadago, beren eñiko elizan,  
baldin iru kilometroko bidean Prantziskotar  
Praile edo Monja-etxerik ezpada.

*Nola irabazi:* Lenbizi bi egun oietako ba-  
tean aitortu eta Jauna artu; gero elizan sar-  
tzen dan aldi bakoitzean sei *Aita gure, Agur  
Mari eta Gloria* esan, Aita Santuaren as-  
motarako.

---

X

**GURE IKASBIDEA.**


**1. Jaungoikoa maitatzen**

Onbide guztien iturburua eta guztietan bikañena Jaungoikoarekiko maitetasuna, goimaitetasuna, da. Eta Prantzisko Deunaren maitetasun ori ain aundia izan zan, ta alde guztietan *Asisko Serapina* esaten zaio.

Jaungoikoarekiko maitetasun bizi-bizi arek eragiñik, bere buruarentzat beti neke ta laido bila ibiltzen zan. Gauza guztietan Jaunaren esku altsua ikusten zuan eta gauza guztiak, bizi gabeak ere, bere senidetzat artzen zituan.

Luñean arkitzen zituan paper puska guztiak jaso egiten zituan, Jaunaren izena, berrietan idatzirik baldin bazegoan, iñork oñazpian artu etzezan; eta bere Anaiai ere ori bera egiteko esaten zien.

Jaungoiko gure Jaunak, izatea emateaz



Grezioko Eguberri jaia.

gañera, gure onerako Bera gizon egiñaz, gurutzean ilaz eta Eukaristian gure janaritzat geldituaz erakutsi zigun bereziki gurekiko bere maitetasuna, ongi-nai ta erukitasuna. Eta Prantzisko Deunak iru gauza, gertakari, oiek bereziki maitatu ta ospatzen zituan.

*Jesus Auña.* Prantzisko Deuna, Jainko-Semearen gizon egiteaz eta Jesukristoren jaiotzaz itz egitean, atsegin-pozez zoraturik gelditu oi zan. Ezin esan alakoa zan gure Deun onek Egubeñi jaietan izaten zuan alaitasun-poza. Eta beste guztiak ere egun oietan alaitzea ta poztutzea nai izaten zuan; eta gizonak ezezik, abereak ere egun oietan janari ohea ta ugariagoa izan bear zutela esaten zuan.

Baño garai berean, Jesus Aurtxoak eta bere Ama Andre Marik, Belengo estalpean izan zuten, beartasun eta ezerez goñiaz oroiturik, negar egiten zuan.

Prantzisko Deuna izan zan elizatan Jesusen jaiokunde-irudia egiteko oitura sortu zuana.

*Jesukristoren Nekaldia.* Neufigabea zan

gure Jaunaren nekeak eta eriotza ikaragarria gogoratzeak Prantzisko Deunari egiten zion naigabe ta atsekabe-samiña. Batez ere garizuman eta Aste Santuan aren gogoeta bakaña Jesukristo Gurutzetuazkoa izaten zan; eta samintasunezko negarretan urtu oi zan.

Ardiak eta bildotxak eruz maite zituan, gugatik il zan, Bildotx erugabe, Jesus gogoratzen ziotelako.

Bein batez akertalde baten erdian ardi bat ikusi zuan eta bereala negarari eman zitzai-on—«Oñela ibili zan Jesus judu eta parixetaren artean»—esanaz.

Askotan, Maitea maite etzalako, gauza guztiai negar egiteko esanaz, basoetan deardarka ibili oi zan. Bein batean gizon batek alako negar samiñak zergatik egiten zituan galdetu zion.—«Nere Maitea gurutzean dago; eta ni zerbait atsegindu nai banazu, aren nekeakgatik nerekin batean negar egin eazu»—erantzun zion Prantzisko Deunak.

*Eukaristia.* Lur onetan degun, gauzarik arigarriena eta bikañena Eukaristia, elizako gure Jauna da. Prantzisko Deuna etzan be-

ñere gure Jaunaren aúrean belauniko ego-  
teaz aspertzen.—«Esaidazu jauregi(sakrario)  
aúrean ainbeste orduz zer egiten dezun»—  
galdetu zion Prantzisko Deunari bere adiski-  
de batek.—«Zer egiten dik eskaleak abera-  
tsaren atarian, eriak sendalariarenean eta  
egañi danak ituñian? Aiek egiten dutena egi-  
ten dikat bada nik ere gure Jaunaren aúrean:  
eskatu, jauretsi, agurtu eta maitatu»—eran-  
tzun zion Prantzisko Deunak.

Ezin eraman zuan onez Prantzisko Deu-  
nak, gure Jauna dagoan, elizak zikiñak ikus-  
tea; eta askotan bera aritu oi zan eñietako  
elizak garbitzen; eta gure Jauna ikutu bear  
duten, ontziak eta zapiak alik garbienak eta  
edeñenak izatea nai zuan.

Añitzekoa da ere, Prantzisko Deunak apai-  
zai zien, begirapena ta maitetasuna. Ainge-  
rua ta apaiza, biak batean arkitzen baldin  
bazituan, apaizari, aingeruari baño lenago,  
agur egingo omen zion. Apaizak, bere na-  
gusiak bezela, maitatu ta ooretu nai omen  
zituan; eta ez omen zuan oiengan obenik  
eta gaiztakeririk ikusi nai, beroiengan Jaun-



« Garbiagoa izan bear da apaizaren anima. »

goikoaren Semea ikusten zualako; eta ogia gure Jaun berak egiten dutelako; eta berak artu eta besteai ere apaizak ematen dietelako.

## 2. Andre Mari eta Deunak ospatzen.

Prantzisko Deunak eraspen (*debozio*) txit berezia izan zion gure Ama laztan Andre Mariri. Ama maite oni, giza-mingaiñak ezin esan alako, goraltzak, otoitzak eta biotzagurak egiten ziozkan.

Bere bizitza guztian Ama biotz-samur onen ardurapean bizi izan zan eta Portziunkulan, Ama beraren babesean, il nai izan zuan.

Bere Anaidia, sortu zanetik, goiko Ama kutun onen zaipean ipiñi zuan.

Jaungoikoaren Ama izateari egoki zaion, guztia Andre Mariz esateko bildurik ez izateko, esaten zien bere Anaiai, *Praileai*.

Eta berak Andre Mariren jai aurreetan barau luzeak egiten zituan.

Deunen artean, eraspenik (*deboziorik*)



bereziena Migel Deun Goiaingeruari eta Pedro ta Paulo Bidali Deunai izan zien.

### 3. Lagun-urkoak maitatzen.

Jaungoikoa maitatzeari berez dario lagun urkoa ere maitatzea: bi maitatze auek bat egiñik dabiltz beti.

Prantzisko Deunak lagun-urkoak zenbateraino maite zituan, bere egiteak garbi asko adierazten digute.

Alegin guzian, iñori kalterik ez egiten ezezik, guztiai on egiten arduratu zan. Asaretuak paketu zituan eta ezbeartuai beren zorigaitzak sendatu zizkien. Eta oretarako, bear bazan, ariñari (*mirari*) aundiak egiten zituan.

Eri batean, egañiz il bearean ziran langile batzuek ardoa eskatu zioten eta Prantzisko Deunak aldeko iturria onetsi, bedeinkatu, zuan eta iturria, ordu bete baño geiagoan, ardoa zeriola egon zan.

Baño, batez ere, bere prailekiko aren onginaiak baztarik etzuan, Prantzisko Deunak

bere praileak baño, bere semeak maiteago dituan amarik ez da.

#### 4. Apala ta beartsua.

Aita Santuak Prantzisko Deunari, bizi zan arte guzian, bere Anai guztien nagusi izatea eman zioten; baño Prantzisko Deunak beti guztien menpeko izan nai zuan.

Bein batez aingeru bat agertu zitzaion eta ur garbiz betetako ontzi garbi-garbia erakusten ziolarik, esan zion: «Begira, Prantzisko, oraindik garbiagoa izan bear dek apaizaren gogoa (*anima*).» Eta ordutik apaiz ez egitea erabaki zuan, bera oretarako gai etzala ta.

Zenbat eta eñiak geiago goratu eta ospatzen zuten, ainbat eta beragotzen zuan Prantzisko Deunak bere burua.

Ebanjeli-beartasuna maitatzen ez du Prantzisko Deunak berdiñik izan gizonen artean. Ain maite zuan beartasuna ta bera baño beartsuagoren bat ikusten bazuan, negar egiten zuan, eta besteak estaltzeko bere burua biluzten zuan.



Prantzisko deunari entzuten.

### 5. Garbitasuna ta ildura.

Oso atsegin zitzaion Prantzisko Deunari garbitasuna. Zeñen ikusgaría zan aren giza-bide erugabea, aren gogo bakuna, aren begiratze garbia! Emazteki bati ere etziola beñere begiratu esan zien, bein batez, bere Anaiari; ainbestekoa zan aren eratsu izatea.

Prantzisko Deuna, beste gizon guztiak bezelaxe, aragizkoa zan; baño Jaungoikoaren laguntzaz eta bere buruari ematen ziozkan, nekeen nekez garbitasuna akatsik ere gabe begiratu al izan zuan.

Nork adierazi Prantzisko Deunak bere gorputzari eramenerazi ziozkan nekeak? Urtearen egun geienak barau egunak ziran arentzat.

1211 urteko garizuma Perusako ugartetxo batean igaro zuan; eta auster-egunetik asteazken santua arte, opil erdi bat besterik ezer etzuan jan.

Bein baño geiagotan, bere gorputza sasi eta elur artean iraulkatu zuan. Ezin ukatu ziona beste janari ta edaririk etzion ematen,



Perusako ugarteian.

eta askotan bere janari apurari su-autsa nas-  
tutzen zion.

Eriotzako orduan bere *astoari*,—ala esa-  
ten zion bere gorputzari—barkapena eskatu  
bear izan zion, ain gaizki erabili zualako.

Baño bere buruarentzat ain gogoña izan  
aren, besteentzat maitagaña, atsegiña, ezti-  
tsua eta alaia izan zan.

### 6. Prantzisko Deunaren otoitza.

Prantzisko Deuna otoitz egiteari oso ema-  
na zan; egunak naikoa etzitularik, gauak  
ere otoitzean igarotzen zituan. Eten gabekoa  
zan aren otoitza; eta, zebilén tokian zebile-  
la, aren adimena Jaungoikoaz gogoeta egi-  
ten ari zan beti. Eta bere otoitz etengabea-  
ren bidez iritxi zuan ain urte gutxitan ain  
deun, santu, aundia egitea.

Bere otoitzaldietan zentzu-galdu ta sorgor  
aundiak izaten zituan; eta Jesukristo ta bere  
Ama askotan agertu zitzaizkion.

Bein batez Andre Mari agertu zitzaion eta  
Jesus Auña eman zion aldi batean bere be-

soetan eukitzeko. Beste bein Jesukristo, Andre Mari, Joan Bautista eta Joan Ebanjelaria agertu zitzaizkion, eta beraiekin luzaroan itz egin zuan.



## XI

### PRANTZISKO DEUNAREN ZAURIAK

#### I. Zauri=ezarkundea.

Alberni, Florentzi ta Arezo artean dagoan, mendi goia da. Sei aldiz igo zan Prantzisko Deuna mendi ofetara, bakañean eta jainkozko gogoetari erabat emanik, bizitzera.

Atsegiñaldi aundiak eman ziozkan gure Jaunak Prantzisko Deunari mendi ofetan bere igoaldi guztietan, baño seigañen igoaldian, ordurarte iñori egin etzitzaion, eskaña, baztar guztiak aritu bear zituan, eskaña egin zion: bere bost zauri agurgariak ezafi zizkion.

Gurutze Deunaren Goreskundea, Agoñilaren amalaua zan. Oñaritean Prantzisko Deuna otoitz egiten ari zan, eta ezustean, suzko sei egodun Serapiña zerutik jetxi eta, arengandik urbil, aizean gelditu zan. Sera-





Prantzisko Deuna otoitz egiten.

pinaren egal artean Jesus Gurutzetuaren irudia agiri zan.

Ura ikusita, Prantzisko Deunaren gogoa ezin esan ala ańiturik gelditu zan. Garai berean pozez eta naigabez zegoan: bere biotzeko Jaungoikoa begien ańean zeukalako, pozez; eta, ikusten zuana, Jesus Gurutzetua zalako, naigabez.

Ikuskaria izkutatu zitzaion; bańo bere bafenean sugar bizia eta bere gorputzean bost zauriak ezańirik utzi ziozkan.

Esku-ońak iltze aundiz zulaturik bezela zeuzkan, eta saietsean zauri zabal erdi-irikia zeukan.

Zauri oiek Prantzisko Deunari il arte iraun zioten eta ońaze aundiak ematen ziozkaten eta saietseko zauritik, sońekoen gańeko aldean agertzerańo atera oi zitzaion odola.

Prantzisko Deunak zauriak estaltzeko alegińak egin zituan; bańo Jaungoikoak, zaur agurgarien ezaupidez, ańigari aundiak egin zituan.

## 2. Añigaria.

Domekar-etxe bateko jantokian Prantzisko Deunaren irudi eder bat zegoan zintzili-



**Prantzisko zauriduna.**

ka. Prantzisko Deuna bere zauriak erakusten zituela zegoan; eta etxe artako praileguztiak agur aundia zekarkioten.

Baño guztien artean bazan bat, Prantzisko Deunak zauri aiek izan zituanik sinisten etzuana eta sinistu nai ere etzuana.

Praile oreek bada, irudiaren zauriak uratzeko asmo gaiztoa artu zuan. Gau batez uratu zituan; baño urango goizean, len bezin eder agiri ziran. Beriz ere uratu zituan; baño baita beritu ere ziran, aurrekoan bezelaxe. Irugañen aldian, irudiaren oiala zultzeraño, uratu zituan; eta bat-batean zuloetatik odolketa aundia asi zan ateratzen; zorrigaiztoko praileari eskuak, arpegia eta soñekoak busti ziozkala. Ori ikusita, izu-ikarak artu zuan eta kordegabeturik lufera erori zan.

Beste Anaiak etori ziran eta jaso zuten, baño egin alak egin añen, ezin gelditu zuten irudiari zerion odola. Eta praile sinisgaitzak egin zuan gaiztakeria ezaguturik, guztiak Prantzisko Deunari barkapen eske asi ziran. Odola gelditu zan, zuloak itxi ziran eta zauriak len bezelaxe gelditu ziran.

Praile sinisgaitza onbiurtu zan; eta aurrekoan Prantzisko Deunaren zaurien aldezkari sutsuenetakoa izan zan.

## XII

### BETIKO SARIA

#### 1. Prantzisko Deunaren azken egunak.

Prantzisko Deunaren bizitza azken aldera neke aundikoa izan zan. Gure Jaunak ezarri ziozkan, bost zauriaz gañera, eritasun aundiak izan zituan eta azkenerako ia erabat itxuturik gelditu zan. Alarik ere etzuan iñoiz ere sendagairik artu nai izaten, nagusiak artzera beartu zuten arte.

Aritzekoa da Prantzisko Deunak neke ta oñaze izugarri aien artean izaten zuan alaitasun-poza ikustea.

Bein batez, zuti ezin egonik, luñera erori zan eta oso mañaturik gelditu zan. Alarik ere luñari muñ egin eta onela mintzatu zan:— «Eskeñak, Jauna, bialtzen dizkidatzun, neke-oñazeagatik. Eun aldiz aundiagoak eman zaizkidatzu, zuk ala nai badezu; zure naia egitea da nere atsegin bakaña».

Bere neke-gaitzak aundiak izan eta berez



ibiltzeko gauza ez izan aŕen, gogoen (*animen*) onez lanik egin gabe ezin egon zan: eta Unbri aldeko eŕiak zear ibili zan, besteak eramaten zutelarik, bere gizabideaz, bere itzaz eta, egiten zituan, aŕigaŕi aundiaz eŕi guztiak zoraturik eta jainkozkoturik uzten zituala.

## 2. Prantzisko Deunaren eriotza.

Prantzisko Deuna Asisko Gotzai-jauregian zegoan eri, gaxo. Eta bere azken ordua urbil zala ezagaturik, Portziunkulara eraman zezatela eskatu zien bere Anaia. Ara zeramatela, bide erdira ziranean, gelditu ziran, eta Prantzisko Deunak, Asis aldera begira jaŕirik, azkeneko aldiz bere zorioneko jaioteria onetsi zuan.

Urtilaren lenengo egunean, ostegunean, etxeko praile guziak bildu zituan bere inguruan eta guziaz, anaitasun-ezaupidez, ogi be-deinkatua eman zien eta guztiak onetsi zituan. Praile guziak beren Aitarengandik ezin aldendurik eta negaŕez zebiltzan.

Larunbata goizean Elizakoak artu zituan:

**Aingeru artera igo ziñan Prantzisko deuna. Oroï zaite beti,  
luñean maite zaitugunetaz.**



**Prantzisko Deunaren eriotza.**

eta aratsaldean, eguzkia sartu ondoan, Dabiden CXLI eresia bukatzeaz batera, il zan.

Egun gogoangari ura 1226 urteko Uñilaren irugañen eguna zan.

Gizonak negaiez gelditu ziran; baña zeruko guztiak poztu egin ziran, Deun arigari ura beren artean ikusirik.

### 3. Eriotz=ondoa.

Prantzisko Deunaren il beña berealaxe bañeatu zan eta «Santua il da, Santua il da» zioten inguramari guztian.

Prantzisko Deunaren iletak ospe aundiakoak izan ziran; eta aren gorputzila Asisko Jorje Deun elizan eortzi zuten.

Berealaxe asi zan Jaungoikoa Prantzisko Deunaren bitartez mirari aundiak egiten.

Benebento ondoan emakumezko baten iletak egiten ari ziran. Ezustean gorputzila jeiki zan eta apaiz bati otska asi zan, beñere esan etzuan oben, pekatu, lañi bat aitortu bear zuala ta. Oben lañi arengatik inpernura joan bear omen zuan; baño Prantzisko Deunak, bizi zan artean eraspen aundia izan zio-



lako, oben ura aitortzeko piztutzea iritxi omen zion Jaunagandik. Aitortu zuan eta berealaxe beñiz il zan zerura joateko.

Prantzisko Deunak goratzaile ta maitatzaile asko zituan; bañan etsaiak ere izan zituan, eta oien artean izan ziran, zigorkada edera artu zutenak.

Gizaseme gazte bat, Prantzisko Deunaren kaltez itzegiten ari zala, mututurik gelditu zan. Beste zaldun batek «Prantzisko deuna *santua*, baldin bada, gaur bertan il nazatela» esan zuan. Eta egun artan bertan bere iloba batek labainkadaz ilda utzi zuan.

#### 4. Deuntzakundea.

Prantzisko Deuna, il eta bi urte baño len, 1228 urteko Uztailaren 15'ean agirian deun, *santu*, iragaña izan zan. Bederatzigaren Gregorio Aita Santuak Asis berean deuntzatu zuan; eta elizkizun eder aietan izan ziranetako bat Prantzisko Deun beraren ama, andre Pika izan zan.

Eta urte gutxiren buruan lurbira guztiko eliza geienetan agiri zan Asistar Prantzisko Deunaren irudi aguragaña.

XIII

**ASISTAR PRANTZISKO DEUNA  
EUSKAL-ERIAN**


Asistar Prantzisko Deunak ziñopa, *martiria*, izan nai zuan, Jesu Kristoren Ebanjelioa zabaltzeagatik bere bizia eman nai zuan. Gogo ořetaz 1212 urtean Siria aldeko mairu eta beste sinisgabeai kristau sinistea erakusteko asmoz itxasoratu zan; baño itxasaldi txarak eragotzi egin zion ara joatea.

Uřengo urtean, bere bizia Jesu Kristogatik emateko gogo bizi-biziak eragiñik, Mařokorako bideari eman zitzaion, ango eřege Miramamolini eta aren mendeko guztiai Jesu Kristoren Ebanjelioa erakusteko asmoan; bañan bidean eri aunditu zan eta itzuli egin bear izan zuan.

Prantzisko Deuna Mařokora zijoalarik, bide nabar, Euskaleřia zear ibili zan; eta gure bazter eder-maite onetan bere deuntasun uřatsak utzi zizkigun.



- ..... Euskaleriko mugak
- Probintziko mugak
- Oraingo komentuak
- ◊ Komentu galduak
- Asis-ko Prantzisko Donatzen ibil-bideak



Gauza zaila, gaitza, da Asistar Prantzisko Deuna Euskalerian noiz eta nun ibili zan egi-egiz jakitea. Maroko alderako bidealdia 1213 urtearen erdi aldetik 1215 urteko Azila bitartean egin zuana badakigu; baño oñezaz gañera, amaseigañen mendea ezkeroko edeslariak esaten digutena eta, Prantzisko Deuna izan zala dioten, erietan diotena besterik ezdakigu.

Edeslariak diotenez, Asistar Prantzisko Deuna Zangoza aldetik etorri zan; eta Zangozazañean, Iruñan, Gazteizen eta Tudelan bere praileentzat etxeak jaso zituan eta Donostin ere izan zan.

### **1. Asistar Prantzisko Deuna Zangozazañean.**

Lenago Zangozazar zeritzon eta gaur egunean *Rokaforte* esaten dioten, eñi koskoña Zangozatik bertan dago, Aibar mendia-  
ren ipaialdeko maldan. Eñi oñen luñetan, beste malda batean, etxetxo zañakatu bat agiri da, Bartolomeo Deuna esaten diotena.

Asistar Prantzisko Deunak baselizatxo ura oso atsegin izan omen zuen eta bere

lagunakin aldi batean an egon omen zan, gure aberian sartu ta bereala. Eta bera andik atera zanean, bertan bere lagunetako bat utzi omen zuan. Oñela eldu zan baselizatxo ura alde autako prantziskotañen lenengo etxea, *komentua*, izatera.

Edeslari batzuek diotenez, Prantzisko Deunak berak egin omen zuan Bartolomeo Bidali Deunaren opazko elizatxo ura, bere praileen bizitoki izateko.

Asistar Prantzisko Deunak, toki bakar artan bizi izan zan bitartean, añigari, *mirari*, aundiak egin omen zituan.

Elizatxoaren ondoan baratza txiki bat omen zan eta beroñetan Prantzisko Deunak martzusta ondoa aldatu omen zuan; eta zugaitz aren oñiak gaitz asko sendatu omen zituzten. Etxe artatik praileak atera ziranean zugaitza igartu egin omen zan; eta praileak beñiz etoñi ziranean beñitu egin omen zan; eta beñiro praileak atera ziranean beñiz ere igartu egin omen zan. Zugaitz igar oñek oraindik irauten du eta, kristauak puska asko kendu añen, ez omen da txikiagotzen.



Prantzisko

Prantzisko Deuna zerura naiez.

Elizatzotik urbil, *Prantzisko Deunarena* esaten dioten, ari bat dago. Asistar Prantzisko Deuna ari oretan esertzen, jartzen, omen zan atsedeteko; eta beregana zijoan, ozteari ari oren gañetik itz-egiten omen zion.

Elizatxoaren eta eñiaren bitarteko sakonean *Prantzisko Deunaren ituaia* dago: ituaia ortako ura Prantzisko Deunak onetsi, be-deinkatu zuan ezkerro, sukañak sendatzeko ona omen da.

Gaur egunean etxetxo ura utsik dago eta elizatxoa Zangozazañeko apaiz jaunaren ardurapean dago.

## **2. Asistar Prantzisko Deuna Iruñan.**

Napañoko eñe Santxo *Indartsua* Tude-lan omen zan; eta Prantzisko Deunak, bera eri zegoalako, bere bi lagun, Aldeario eta Lupo Anaia, biali omen zituan eñe gearengana, Napañoko lufetan bere praileentzako etxeak egiteko baimena eskatzera. Bi praileak joan ziran eta Prantzisko Deunaren izenean baimena eskatu zioten eñe geari. Prantzisko nor zan eta zer zebilen galdetu omen



zien éregeak; eta bi prailecn erantzupen ari-  
gaña aditurik, eskatzen zuten, baimena  
eman omen zien; eta gañera, Iruñara joan  
eta ango auzoarteak paketzeko, aren ize-  
nean, Prantzisko Deunari esateko, esan  
omen zien éregeak.

Napañoko éregearen esanera, Prantzisko  
Deuna Iruñara joan omen zan; eta bufuka  
goñian zebiltzen, ango auzoarteak onez pa-  
kea egitera ekañi omen zituan. Eta Iruñañak,  
eskuerakutsiz, etxe bat egin omen zuten  
Érotxapeko Petro Deuna elizatxoaren on-  
doan, Prantzisko Deunaren praileentzako.

Etxe ortako lenengo nagusi Prantzisko  
Deunaren lagun bat izan omen zan; eta Iru-  
ñako eta inguruetako gizaseme asko sartu  
omen ziran *komentu* oñetan.

Geroago gogoen, *animen*, onari obekia-  
go begiratzeko uri bañenera aldatu omen zi-  
ran praileak; eta aiek utzi zuten, etxean,  
*Barañaingo Andreak* esaten zieten, *monja*  
augustindañak sartu omen ziran

Prantzisko Deunak irasi zuala dioten, prai-  
le-etxea, gaur egunean Érotxapeako Petro

Deuna deritzon eta *monja* Augustindañak bizi diran, *komentua* da.

### 3. Asistar Prantzisko Deuna Gazteizen.

Amaseigañen mendea ezkeroko edeslariak diotenez, Asistar Prantzisko Deuna Gazteizen izan zan eta uri berean praile-etxea egin zuan.

Uri oñetara eldu orduko gazteiztañak bere aldez jañi omen zitzaizkion Prantzisko Deunari; eta guztiak gogo onez lagundu omen zioten bere praileentzako etxea egiten.

Prantzisko Deunak jaso zuan, etxea, Mari Madalene Deuna deritzon, elitzatxoa omen da; eta elizatxo ori izan omen zan geroago-ko *Prantzisko Deuna* praile-etxe aundi-bikaiñaren oñaña. Beste garai batean gañantzzi aundikoa izan zan, praile-etxe ori gaur egunean gudal-etxe biurturik dago.

### 4. Asistar Prantzisko Deuna Donostin.

Edeslari batzuek uste dutenez, Asistar Prantzisko Deuna Donostira eldu omen zan, uri oñetan ontziratu eta itxasoz Mañokora



**Asistar Prantzisko Deunaren irudia.**

joateko asmotan; baño uri berean eri-aunditu egin omen zan eta. Mañokora ordez, Galiziako Jakobo Deunara joan omen zan beilaz.

### 5. Asistar Prantzisko Deuna Tudelan.

Asistar Prantzisko deuna, Mañokorako biga utzirik, bere aberira itzultzerakoan, izan omen zan Tudela deritzaion Napañoko uribikaiñean. Eta uri orietan ere bere praileen-tzako etxea egin omen zuan. Gaur egunean ez da etxe aren ondakinik ere agiri. Uri berean bada iturri bat *Prantzisko Deuna* esaten diotena; Prantzisko Deunak iturri ori onetsi, bedeinkatu egin omen zuan; eta iturri artako urak añezkero sukardun asko sendatu izan omen ditu.

Asistar gure Aita Prantzisko Deun ori, Euskal-erriak maite zaitu ta onesten eta goresten zaitu. Gure erriaren alde Jaunari otoitz egiozu; Euskalerria zure lokañi zuriaz inguratu eta gaitz guztietatik begira ezazu, euskaldun guztiok, zure lokañiaz ederturik, eriotza ondoan zure ondora gaitezen. Alaxen.

---



# **Asistar Prantzisko Deuna Iruñan**

**(Ituñalde = Legatemendi.)**

---

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

PHILOSOPHY DEPARTMENT

PHILOSOPHY 101: INTRODUCTION TO PHILOSOPHY

LECTURE 1: THE PHILOSOPHER'S LIFE

1.1 THE PHILOSOPHER'S LIFE

1.2 THE PHILOSOPHER'S LIFE

1.3 THE PHILOSOPHER'S LIFE

1.4 THE PHILOSOPHER'S LIFE

1.5 THE PHILOSOPHER'S LIFE

## Asistar Prantzisko Deuna Iruñan

(Ituñalde)

### 1. Tudelako érege-jauregian

Jesu Kristo gure Jauna jaio zaneko 1213 urtea zan. Napañoko érege Santxo Indartsu jauna Tudelako bere jauregian zan, bere gogo nekatuari atsedenaldi bat ematera joanda.

Bere eguneroko gogoeta ilunaz gainera, Iruñako auzoen arteko bufuka eta nasketa aundiak bere atsekabeak geitzeko bidea eta buruauste beria ekañi zioten. Aren aurrekoen aginduak eta esanak alpeñezkoak izan ziran auzo aiek paketzeko. Goñotoak bizirik zirauren gizarte nabar aren biotzean; eta edozein utskeri naikoa zan izugañizko istilua sortzeko. Goñoto aiek aspaldikoak ziran eta mendez mende zirauten. Pakeak egiteko alpeñikakoak ziran lege-bideak eta indañez ibil-

tzeak beriz kalte aundiagoak egin zitzaken. Oregatik bada bearezkoa zan guztiak gizon baten esanera jartzea. Baño nun arkitu guztien atsegiñeko gizona, Érege beraren esanak eta Iruñako Gotzai Aspañago agurgañarenak ere ezertarako indañik etzuten eta?

Garai artan Tudelako érege-jauregira bi eskale atzetar, bi praile beartsu, etoñi ziran, beren Nagusiaren izenean Napañoko Éregeari baimena eskatzera, bere mendeko lufetan sortu beña zuten, Anaidiarentzat etxeak jasotzeko.

Éregeak abegi ona egin zion aien eskabideari; eta beren Zuzenbidea eliz-gizon jakintsuari aztertuerazi ondoan, eman zien, eskatu zioten, baimena. Gero bere auñera aotsi zituan bi praileak eta beren Nagusiaz galde-tu zien:

—Nor da, bere auñetik alako on-otsa dakañen, gizon ori? Zergatik ez da zuekin etoñi?

—Gizon ori, erantzun zion praileetako batek, Lupo zeritzonak, gurekin zetorñen, baño bidean eri gelditu da. Gizon ori Iesu Kristo-



ri jañaikitzeko, Ebanjelioaren esanera, gauza guztiak utzi dituan eskale bat da; soñaz argala, baño gogoz sendoa; ondasun gabea, baño onbidetsua. Bere atsegiña nekeak eta otoitz egitea dira; bere ezpaiñak ixildu gabe ari dira maitasunezko abestiz gure Jaungoikoa ta Egilea goratzen; eguzkiari eta ortziari, basoai eta itxasoai, txoriai eta loreai begira zoraturik gelditzen da; eriak sendatzen ditu, naigabetuak alaitzen ditu eta obendariak, pekatariak, onbiurtzen ditu eta alde guztietan onbide-urñin aundia zabaltzen du. Arek naiduena bere burua deun, santu, egitea eta beste guztiak ere deun, santu, egitea da. Bartzuek *deunā, santua*, esaten diote; geienak beñiz, *erou*.

—Erotasun edeñā—iardetsi zien eñegeak.

—Bai, Jauna, ero izate edeñā da gizon oñena; ero izate ori Gurutzeko ero izatea da ta. Zorioneko erotasun oñek gogoen zoko bañenak ere ikutzen ditu; biotzik gogofenai ere negar eragiten die; oitura gaiztoak ontzen ditu eta etsituak alaitzen ditu. Erotasun on oñez basapiztiak ere añitzen dituela diru-

di, oiei ere onginai berezia die gure Nagusiak eta bere senide txikiak deitzen ditu; erotasun arigari orek, pizti uzuak, amonatuak, ezezik, erietako gofoto biziak ere paketzen ditu.

—Orenbestekoa al da zuen lagun oren eskua?

—Jaun ori,—esan zion Aldeario, bigarren eskaleak,—gizon ori ibili dan luralde guztiak egiztatu dezakete; txoriak bere inguruan jira biraka onespén, bedeinkazio, eske ibiltzen zaizkio; Gubioko otsoa bezela, basapiztiak otzandu ditu; eta Asis eta Arezon erri arteko buñukak iraungi ditu.

Luzaroan ixilik eta gogoetatsu egon zan Santxo eregea, eta gero esan zien bi praileai:

—Zuen irakasle oren bila zoazte; eta nere izenean eskatu zaiozute Iruñara joan dedila eta ango auzoen arteko buñuka gaiztoak iraungi ditzala.

## 2. Buñuka goñian.

Erdi aldeko mendeetan urietan izan ziran buñukaldirik gogorenak eta luzeenak Iruñako

auzoen artekoak izan ziran noski. Iruña lau auzoartetan zatiturik zegoan eta auzoarte oietako bakoitza aresiz inguraturik zegoan eta bakoitzak bere buru bereziak zituan. Zafena eta nagusiena Nabaferia zan; uria deitzen zan eta an zeuden Eliz-nagusia (Andre Mari), Erege-jauregia eta Gotzai-etxea. An bizi izan ziran noski Iruña zafeko aundizki eta gizurenenak. Beste auzoak *San Zernin* *San Nikolas* eta *San Migel* zeritzoten.

Nabaferiaren eta *San Zernin*'en artean sakan bat zegoan; eta toki ori ez batzuen eta ez besteena zan; eta an izaten ziran multikoen arikak eta aundien burukak. Askoetan edozein utskeri naiko zan iskanbila gofiena sortuerazteko.

Ala gertatu zan 1213 urteko udazken goiz batean.

Garai artan kristau asko igarotzen ziran Iruñatik Konpostelako Santiagorako. Bidezti oietako bat Nabaferiko aresi ondoan eseri, jafi zan atsedeteko; Zezilia Deuna zeritzon ituñatik urbil. Aldeko etxeko leiotik begira zegoan mutil gazte batek ikusi zuan eta izke-

tan asi zitzaion eta gero pitxar bat ardo eskeñi zion; eta bideztiak leiaz edan zuan.

Une berean, sakanean jolasean zebiltzan, *San Zerningo* bi mutilko urbildu zitzaizkion bidaztiari eta—Ezak edan,—esan zioten, —Nabañerian bidaztiai ardoa ta ogia saltzea eragotzita zegok eta.

—Ai lotsagabeak! —oiu egin zien ardozaleak,—nik ez dikat ardo ori saldu egin, Jainkoaren izenean eman baizik.

—Gezua! Neronek ikusi aut dirua jasotzen,—erantzun zion lotsagabeki mutil zantzail aietako batek.

—Zirtzil ori, bizkaña berotu dikat nik, ixilik ezpaago. Eta ori esanaz, mutilaren ondoren asi zan; bañan mutilko lotsagabeak iges egin zion, eta aresi gainetik begira zegokien laruketariari gafasika asi zitzaion:

—Aita, il egin nai nautela!

Laruketaria laisterka etoñi zan ardozalearengana eta, gaitzespen aundiz bere oiñetara tu-egiñik, onela iardetsi zion:

—Itza-jaleak, añaikin kementsuak eta la-

riakin gelberak, oloak, ala zerate zuek, Nabareñikoak!

Ori esan bazuan esan, ardozaleak bidaztiaren eskuetako ardo-pitxaña artu eta beraz arpegian eman zion auzotari, ardoz eta odolez bustirik uzten zualarik.

Laruketariaren iraiñetara eta mutilkoen eta, bertan bildu ziran, emakumeen deadar-garasieta, auzoarte batetik eta bestetik asi ziran giza-sailak etortzen eta, bakoitzekoak berekoen alde, eztabaidan eta burukan, elkarfi itzik laidotsuenak esaten ziozkatelarik:

—Lotsagabeak!

—Aroputzak!

—Matur zikiñak!

—Lapurak!

Bereala aresi arteko sakana bi aldeetako lagunez bete zan eta izugarizko iskanbila atera zuten. Sail batzuetan, itzak utzirik, ukabilka zebiltzan eta beste batzuetan arika eta makilka.

Alako batean, nundik etofi zan etzekiten, ari koskor batek, ozte artean bere semeen bila zebilen, emakume gaixo bat aurpegian

jo eta odoletan luñera bota zuan. Ur tanta orek ibaiari gainez eragin zion: aña nundik etoñi zan ez jakitea axola gutxiko gauza zan: alde bakoitzekoak bestetik etoñi zala zioten eta, ordura arte geienak bakoitza bere luñaldeetan zeuden, Nabañeritañak, eta *San Zernin*, *San Nikolas* eta *San Migelko* auzotañak bata bestearen gainera etoñi ziran eta, ekaitzaldi aundian bi olatu arok elkar jotzen duten bezelaxe, bi aldeetakoak elkar jo zuten.

Lenengo buñuka aldia guda gogor biurtu zan eta alde guztietara berealaxeko batean zabaldu zan. Auzoarteetan gizon guztiak buñukara joan naiez zebiltzan eta eskuarte aundieneko gizonak eta nagusiak oiuzka eta deadarka zebiltzan; emakumeak negañez gasika, etxe bañenetan edo elizaetan bildu ziran Jaunari otoitz egitera; eta elizgizonak eta praileak ozte asañetuak pakeratu nairik zebiltzan...

Bañan alpeñik! Alde guztietan su-kanpaia eta iskiño-ots txiñitia besterik etzan aditzen. Nabañeriko eta auzoarteetako doñeetatik añi

jauzka eta arerioen, etsaien, aldeko etxeak ondatzen asi ziran; eta an da emen, autsezko laño artean su gaiztoaren gañak agiri ziran!.... Ondatzera zijoan guztia.

### 3. Senideak, anaiak!!

Baño une artan añesi arteko sakanaren garaiko aldean zerbait añigaña gertatu zan; gudariak erasoari utzi egiten ziotela zirudian eta goñotozko deadañak ixildu egin zirala eta ozteak, zuñunbilatzen zan garai berean, begirapen aundia ekañierazten zien, norbaiti bidea egiten ziola ematen zuan.

—Gotzai, Obispo, jauna dek!—zioten batzuek, aldaketa ura urutitik ikusita.

—Santxo eñegea da!--zioten beste batzuek. Etzan ez bata eta ez bestea.

Ozte asaldatuaren erdian, Tudelako eñege jauregian ikusi ginituzen, bi eskaleak, Lupo eta Aldeario, agiri ziran eta bien añetik, aien irakasle ta nagusia, Napañoko eñegeak Iruñako biztanle nastariak paketzera bializuan, eskale añigañi ura zetoñen apal eta otzan.

Aren jantzia bere lagunena bezelakoxea zan. Bere soñeko zakar-tafakatua lokafi korapilodunaz gefian loturik zeukan; bere sorbaldan buruñur zabala zeraman eta oiñ utsik zebilén, bere oiñ odolduetan bideetako lazta-suna agiri zitzaiolarik. Gizon ura gizabete erditsukoa zan, oraindik gaztea; baiño oso zargaidurik zegoan; aren ibilera men aundikoa zan, baiño irudi-egin gabekoa; oso itxura apalekoa zan; bere arpegi bizar meatzako ta zurbilak bolizko gizaiduri antza ematen zion; eta aren begiratze samuía zear izkutuko argi edeñak disdis egiten zuala zirudian.

Añesiaren arteko sakanaren toki garaienera eldu zanean, eskale neke-egilea gelditu eta belaunikatu egin zan, arpegiaz luía jotzeraino makurtzen zalarik. Gero zutitu zan eta, bere begiak goi aldera jaso ondoren, giza-odolez bustirik arkitzen ziran inguru negar-garrietara begira jañi zan. Aren begiai negar samiña zerien eta garai berean aren ezpaiñak iribañeka zeuden.

Bañan zer indar berezi ote zuan gizon añek? Ez da esaten eñaza; baiño aren inguru-



ko gauza guztiak aren menpekoak ziruditen. Ozteak, erasotzeari berez bezela utzirik, oraindik asafe zirauen; baño berealako batean erabat ixildu zan eta une artan ezkutuko eskale arek oztearen gainera besoak zabaldu zituan eta samurtasun aundiz esan zien:

—Ai nere senide maite-gaixoak!...

Itz ezti-gozo eta kistar aiek ezin esan alako ondorena izan zuten itz laidotsu eta gofotozko deadar aien ondoren eta biotz-ikutu aundia egin zien giza-sail burukari aiei; eta guztiak, mugitu ere gabe, atzetañari entzute-ra jañi ziran.

Nola adierazi arek esan zizkien gauzak!

Aren abotsa iduriz aula zan; bañan otsen berezia ta gozotasun aundia zuan. Gizon arek, eletaritzako elbiderik gabe, ezagutzen zituan biotzetarako bideak eta aren itzak, goiko intz ozkaña bezela, zetortzen biotzen gainera. Oarkabez, aren itz gozo-samurak men, aundi eta kementsu egin ziran, gaizta-keriaz eta inpernuaz, onbideaz eta betiko zorionaz mintzo zitzaielarik. Baño bereala

agertzen zitzaion beñero bere ezpañetan biotzeko eztimasuna, semearen negañak musuka samuñaz txukatzeke, mokokaldia eten egiten duan amari bezela.

Ozteak etzuan asnasarik ere artzen: doñe eta añesi gainetatik auzoarte guztietakoak, guztiak bat egiñik, ari entzuten ari ziran, añiturik; guztien begietan egiten zuten disdis damutasunezko negar-malko osasungañiak; eta bitartean eskale goi-goitiko ura izugañizko gauza edeñak esaten ari zan eta aren arpegiak maitetasunaz antz-aldatua eta odei argiz inguratua zirudian.

Berealako batean zinkuri aundi antzeko zurmur sorbeñia aditu zan: ozteak, arixtian buñukarako bezela, elkar jo zuten; bañan ez buñuka egiteko eta alkar zauritzeko, bata-beste besarkatzeko baizik.

—Senideak, anaiak! — oiu egiten zuten guztiak, jainkozko gizonaren itzak oiartzunak biñesan balituzte bezela.

Eta oztearen barkapen eskezko deadañak zerura zijoazen bitartean eta giza - odolez bustitako lur ura negañak garbitzen zuan

garai berean, bakartar, praile, apalak, besoak zabaldurik eta gora begira, iribañez beti, Jesu Kristori eskeñak biurtzen ari zan, iritxi zuan, garaipenagatik.

Jainkozko gizon afigaí ura **Asistar Prantzisko Deuna** zan.

**Legatemendi.**


---



# ARKIBIDEA

---

I.	Prantzisko Deunaren aurzaroa.	5
II.	Prantzisko Deunaren gaztaroa.	10
III.	Jaungoikoaren deia.	14
IV.	Bizibide beña.	25
V.	Lenengo Ordena.	31
VI.	Prantzisko Deuna-Mixiolari.	40
VII.	Deuntasun ezaupideak.	48
VIII.	Bigarren eta Irugarren Ordena.	57
IX.	Portziunkulako Barkapena.	66
X.	Gure ikasbidea.	72
XI.	Prantzisko Deunaren zauriak.	86
XII.	Betiko saria.	91
XIII.	Asistar Prantzisko Deuna Euskal- erian.	96
	Asistar Prantzisko Deuna Iruñan.	105



# ARTIKELBA

- I. Einleitung
- II. Die Bedeutung der Arbeit
- III. Die Entwicklung der Arbeit
- IV. Die soziale Lage der Arbeiter
- V. Die Forderungen der Arbeiter
- VI. Die soziale Reformen
- VII. Die soziale Bewegung
- VIII. Die soziale Demokratie
- IX. Die soziale Arbeiterpartei
- X. Die soziale Arbeiterbewegung
- XI. Die soziale Arbeiterpartei
- XII. Die soziale Arbeiterbewegung
- XIII. Die soziale Arbeiterpartei
- XIV. Die soziale Arbeiterbewegung
- XV. Die soziale Arbeiterpartei
- XVI. Die soziale Arbeiterbewegung
- XVII. Die soziale Arbeiterpartei
- XVIII. Die soziale Arbeiterbewegung
- XIX. Die soziale Arbeiterpartei
- XX. Die soziale Arbeiterbewegung



## «Asistar Prantzisko Deuna»'ren edergaíak

---

	<u>Oriald.</u>
1.—Asistar Prantzisko Deuna. . . . .	4
2.—Asistar Prantzisko Deuna bataiatzen . . . . .	7
3.—«Jauna, zer egin bear det?» . . . . .	15
4.—«Zalditik jetxi eta eskuan muñ egin zion.» . . . . .	19
5.—«Éregeen Éregearen oiularianauk ni.» . . . . .	23
6.—Portziunkulako elizatxoan Meza entzuten . . . . .	29
7.—Prantzisko Deuna legenarduna garbitzen . . . . .	37
8.—Soldanen aúean. . . . .	45
9.—Prantzisko Deuna txoriai itz egi- ten . . . . .	49
10.—Gubioko otsoa . . . . .	51
11.—«Eskuetan sagar bana zituela ar- kitu zuan bere semetxoa.» . . . .	55
12.—Klara Deunari monja-soñekoa jan- tzitzen. . . . .	59

- 13.—«Elizara, Prantzisko, elizara». . . 67  
14.—Grezioko Egubefi gaua. . . . 73  
15.—«Garbiagoa izan bear da apaiza-  
ren anima.» . . . . 77  
16.—Prantzisko deunari entzuten . . 81  
17.—Perusako ugartean . . . . 83  
18.—Prantzisko Deuna otoitz egiten . 87  
19.—Prantzisko zauriduna. . . . 89  
20.—Prantzisko Deunaren eriotza . . 93  
21.—Prantzisko Deuna zerura naiez . 99  
22.—Prantzisko Deunaren irudia . . 103
-













